

EUSKARAREN KALE ERABILERAREN AZTERKETA ONDARROAN

Euskararen kale erabileraren azterketak
Euskal Herrian, Bizkaian eta Ondarroan

Saioa Amuriza Amondarain
2010eko uztaila

AURKIBIDEA

1. GAIAREN LABURPENA.....	3
2. SARRERA.....	4
3. EUSKARAREN HIZKUNTZA GAITASUNA.....	5
3.1 Hizkuntza gaitaunaren neurketa egiteko erabilitako metodologia..	5
3.1.1 Euskal Herriko Hizkuntza Adierazleen Sistema (EAS)...	5
3.1.1.1 EUSTAT, Euskal Estatistika Erakundea.....	6
3.1.1.2 Inkesta Soziolinguistikoa.....	7
3.1.2 Euskararen Datu Basea (EDB).....	10
3.2 Ezagutzaren bilakaeraren emaitzak (1991-2006) Euskal Herrian, Bizkaian eta Ondarroan.....	12
3.2.1 Hizkuntza gaitasun maila orokorra.....	13
3.2.2 Hizkuntza gaitasuna adinaren arabera.....	16
4. EUSKARAREN ERABILERA.....	29
4.1 Erabileraren neurketa egiteko erabilitako <u>metodologia</u>	29
4.1.1 Kale neurketaren ezaugarri garrantzitsuenak.....	29
4.1.2 Orain arteko ibilbidea: V. Kale neurketa...	30
4.1.3 Ondarroan egindako kale erabileraren neurketaren hainbat ezaugarri zehatz.....	32
4.1.4 Metodologia: Txillardegiren eredu matematikoa eta erabilera isotropiakoa....	35
4.2 Erabileraren bilakaeraren emaitzak (1989-2006) Euskal Herrian, Bizkaian eta Ondarroan.....	40
4.2.1 Euskararen erabileraren datu orokorrak...	40
4.2.2 Euskararen erabileraren datuak adinaren arabera.....	45
4.2.3 Euskararen erabileraren datuak gaitasun mailaren arabera.....	49
4.2.4 Euskararen erabileraren datuak sexuaren arabera.....	50
4.2.5 Euskararen erabileraren datuak haurren presentziaren arabera.....	51
4.2.6 Euskararen erabilera datuen eta ezagutza datuen arteko konparaketa.....	54
5. EMAITZEN ONDORIO NAGUSIAK.....	57
6. ERANSKINAK.....	62
7. BIBLIOGRAFIA.....	64

1. GAIAREN LABURPENA

Aurrean daukazu bilduma lan honetan, Ondarroako biztanleek duten euskararen ezagutza maila eta euskararen kale erabileraren azterketaren emaitzak ikusi eta aztertzeko aukera izango duzu. Ondarroako azterketa hau Euskal Herriko eta Bizkaiko azterketarekin konparatu nahi izan dut, beraz Euskal Herriko eta Bizkaiko ezagutza eta erabilera datuak ere jasotzen dira lan honetan.

Lehenengo atalean, euskararen ezagutzak izan duen bilakaera jasotzen da, 1991, 1996, 2001 eta 2006ko datu soziolinguistikoetan oinarrituta. Datu hauek bi iturritatik jaso dira; Eustatetik eta Euskararen Adierazle Sistematik.

Bigarren atalean berriz, kale erabileraren neurketak egindako bost urtetan (1989, 1993, 1997, 2001, 2006) jasotako emaitzak ikusteaz gain, euskararen erabilerak izan duen bilakaera ere aztertu ahal izango duzu, datu eta bilakaera horiek irizpide ezberdinen arabera sailkatuta agertzen direlarik.

Ezagutza eta erabileraren neurketen emaitzak eta bilakaera azaltzeaz gain, bien arteko konparaketak, kale neurketaren ezaugarriak, metodologia eta kale neurketei lotutako beste hainbat kontzeptu irakurtzeko aukera ere izango duzu.

Lan hau egiteko Euskal Herria, Bizkaia eta Ondarroa aukeratu izanaren arrazoiak.

Orain dela lau urte etorri nintzen Ondarroara bizitzera Bizkaiko beste herri ez hain euskaldun batetik. Ondarroan euskarak duen ezagutza eta erabilera altuak harritu egin ninduen eta horregatik erabaki dut sakontze egitasmo hau Ondarroako kale erabileran izandako datuetan zentratzea. Aldi berean, maila orokorragoko datuekin (Bizkaia eta Euskal Herria) konparatu eta kokatu nahi izan ditut Ondarroako datuok.

Egitasmo honek eskaintzen dituen datuak aztertuta, Ondarroa euskararen ezagutzaren eta erabileraren "*basamortuan*" oasi bat dela ohartarazteko balioko duela uste dut.

Beraz, lan honen helburu nagusia horixe izan da: Ondarroako kale erabileraren datuak, Euskal Herriko eta Bizkaiko datuen errealitatean kokatu, konparazio bat egin eta ondorioak ateratzea.

2. SARRERA

1989.urtean ekin zitzaion Euskal Herriko kaleetan euskararen erabilera neurtzeari. 20 urte hauetako ibilbidean, lau edo bost urtearekin 5 neurketaldi egin dira; lehena 1989an egin zen eta azkena 2006ko udazkenean. Beste hiru neurketak 1993, 1997 eta 2001ean egin ziren.

1989an Siadecok garatutako metodologiarekin egin zen neurketa. Metodologia berritzailea zen, beste inon garatu gabekoa eta honek atzerrian ere interesa piztu zuen. Ondoren Soziolinguistika Institutuak hartu zuen neurketen ardura eta 2006ko azken neurketa ere Soziolinguistika Klusterraren ardurapean egin zen.

Neurketa hauen helburua nagusia, gure kaleetan pertsonak elkarrekin ahoz komunikatzeko euskara zenbat erabiltzen duten neurtzea da, kalea zentzu zabalenean hartuta noski. Kalea dira herriko plazak, parkeak, jolastokiak, kalerik jendetsuenak, ikastetxe inguruak...

Neurketa hauek Euskal Herri osoan egiten dira, hau da, muga administratibo guztiak gainditzen dituen ikerketa da eta horregatik, Euskal Autonomi Erkidegoa neurtzeaz gain, Nafarroa eta Ipar Euskal Herria ere neurtzen dira.

Kale erabileran lortzen diren datuekin erabileraren argazki kuantitatiboa lortzen da, izan ere jasotzen diren datu bakarrak kuantitatiboak dira. Lortutako datuekin, euskararen momentuko egoera ezagutzeaz gain, urteetan zehar izan duen bilakaera ere jasotzen da.

Erabilera neurtzearen beharra

Euskararen egoera ona den edo txarra den, hobera doan edo okerrera doan galdetzen denean, askotan erantzuna bera oso modu subjektiboan ematen da. Horregatik, gero eta garrantzitsuago da euskararen egoera eta bilakaera modu objektiboan baloratzeko aukera ematen duten datuak izatea. Datu horien artean funtsezkoa da euskararen errealitatea adierazteko kalean erabiltzen den euskararen neurketa.

Badira beste hainbat datu (errolako ezagutza datuak, ikastetxe eta euskaltegiako datuak...) herriko hizkuntza egoera ezagutzeko baliagarriak direnak. Hala ere, herrian euskararen normalizaziorako ahaleginen ondorioak eta denborarekin ematen diren aldaketak eguneroko erabileran islatzen dira. Kale erabileraren neurketak, beraz, errealitate horren berri ematen du modu zuzen eta objektibo batean.

3. EUSKARAREN HIZKUNTZA GAITASUNA

3.1 Hizkuntza gaitasunaren neurketa egiteko erabilitako metodologia

Kale erabileran lortutako emaitzak aztertu aurretik, komeni da Euskal Herriko, Bizkaiko eta Ondarroako hizkuntza gaitasunaren eta beronek izandako bilakaeraren datuak ezagutzea, ondo kokatu eta kale erabileraren datuen interpretazio egoki bat egiteko.

Lan honetan agertzen diren hizkuntza gaitasunaren datuak bi datu basetatik lortutakoak dira; Euskal Herriko Hizkuntza Adierazleen Sistema eta Euskararen Datu Basea. Euskal Herriko Adierazleen Sistemari agertzen diren datuak, Eustaten Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsutik eta Inkesta Soziolinguistikotik lortutakoak dira. Iturri hauek erabiltzearen arrazoia ondorengoa izan da: Euskal Herriko, Bizkaiko eta Ondarroako hizkuntza gaitasuna irizpide berdinekin jasotzen duen datu baserik ez dago, horregatik iturri hauek erabiltzea erabaki dut. Iturri hauetatik lortutako datuak ez dira zehatz-mehatz irizpide berdinekin jasotakoak izan baina hizkuntza gaitasunaren ideia orokor bat egiteko baliagarriak izango dira.

Hurrengo lerroetan, iturri bakoitzaren ezaugarriak azaltzen dira:

3.1.1 Euskal Herriko Hizkuntza Adierazleen Sistema (EAS)

Euskal Herriko Hizkuntza-adierazleen Sistema (EAS) aginte publikoei, euskararen erabileraren normalizazio prozesuan diharduten eragile eta organoei, eta hiritarrei oro har, euskararen egoeraz eta Euskal Herrian luze-zabal agertzen duen bilakaeraz informazio zehatza eskuratzeko tresna da, Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatzen duena. Datu base honen helburua informazioa eguneratuta egotea da, beraz, uneoro eskuragarri dauden daturik berrienak eskaintzea da EAS datu basearen helburua. Eta sistemaren helburua bikoitza dela kontuan izanik, hau da, euskararen egoera eta bilakaera neurtzea, aurreko urteetako datuak ere eskaintzen dira.



Datu base honetan agertzen diren datuen iturriak, urteetako Inkesta Soziolinguistikotik eta Eustatek erabiltzen duen Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak dira.

Hizkuntza Adierazleen Sistemaren datu basean agertzen diren hizkuntza gaitasun datuek, **16 urtetik gorako biztanleen datuak** jasotzen dituzte. Hamasei urtetik beherakoak datuak ez dira azaltzen.

Euskal Herriko biztanleen hizkuntza gaitasuna jasotzeko, EAS iturri egokiena dela iruditu zait. Zazpi probintzietako datuak agertzeaz gain, datu baserik eguneratuena ere berau da. Azken datuak 2006. urtekoak dira eta 1991, 1996 eta 2001eko ere jasota daude. Beraz, **lan honetan agertzen diren Euskal Herriko hizkuntza gaitasun datuak, EAS iturritik ateratakoak dira.**

EASEk hizkuntza-ezagutza bost kategoria nagusitan banatzen du: euskal elebidunak, elebidun orekatuak, erdal elebidunak, elebidun hartzaileak eta erdaldun elebakarrak.

1. **Euskal elebidunak:** euskaraz errazago hitz egiten dutenak, euskaraz baino.
2. **Elebidun orekatuak:** erdaraz euskaraz bezain ongi aritzen direnak.
3. **Erdal elebidunak:** erdaraz errazago hitz egiten dutenak euskaraz baino.
4. **Elebidun hartzaileak:** euskaraz nekez hitz egin edo hitz egin arren, ondo ulertu edo irakurtzen dutenak.
5. **Erdaldun elebakarrak:** euskaraz batere ulertu ez eta hitz egiten ez dutenak.

3.1.1.1 EUSTAT, Euskal Estatistika Erakundea



Eustat, Euskal Estatistika Erakundea, Eusko Jaurlaritzaren erakundea autonomoa da, Ekonomia eta Ogasun Sailari atxikita dagoena. Euskal gizarte eta ekonomiaren gaineko informazio estatistikoa bildu, aztertu eta hedatzea da erakundearen helburua. Ikerketan eta garapenean, prestakuntzan eta laguntza metodologikoan ere aritzen da eta lankidetzan unibertsitate, estatu-erakunde eta Eurostatekin. Euskal Estatistika Batzordearen eta Euskal Estatistika Kontseiluaren aholku- organoen koordinatzaile gisa ere dihardu.

Eustaten agertzen diren hizkuntza gaitasun datuek, **2 urtetik gorako biztanleen datuak** jasotzen dituzte. Esan bezala, Eustat ez da datu base bat, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuen arabera, besteak beste, datu bilketa egiten duen erakundea da.

Bizkaiko eta Ondarroako biztanleen hizkuntza gaitasuna jasotzeko, Eustat iturri egokiena dela iruditu zait, bi urtetik gorako biztanleen datuak emateaz gain, bertan ematen diren datuak eguneratuenak direlako. Eustatek 1986, 1991, 1996, 2001 eta 2006 urteetako datuak eskaintzen ditu. Beraz, **lan honetan agertzen diren Bizkaiko eta Ondarroako hizkuntza gaitasun datuak, Eustatetik jasotakoak dira.**

Eustatek hizkuntza-ezagutza hiru kategoria nagusitan banatzen du: euskaldunak, ia euskaldunak, eta erdaldunak. Kategorია hauek eroldako galdesortan euskararen jakite-mailari buruz egiten diren lau galderei (*ulertzen duzu?, hitz egiten duzu?, irakurtzen duzu?, eta idazten duzu?*) erantzuteko aukeran jartzen diren hiru erantzunen konbinaketa bidez lortutakoak dira. Hiztunek *ezer ez, nekez*, eta *ondo* erantzuten diete galdera hauei errola egiten denean, eta erantzun horien konbinaketatik zazpi hiztun kategoria sortzen dira:

1. **Euskaldun alfabetatuak:** euskara ondo ulertu, hitz egin, irakurri eta idazten dutenak.
2. **Euskaldun erdi-alfabetatuak:** euskara ondo ulertzen eta hitz egiten dutenak, baina nekez irakurtzen eta idazten dutenak.
3. **Euskaldun alfabetatugabeak:** euskaraz ondo ulertzen eta hitz egiten dutenak, baina irakurtzen eta idazten ez dutenak.
4. **Ia euskaldun alfabetatuak:** euskara ongi eta nekez ulertzen duten, nekez hitz egiten duten, eta ondo edo nekez irakurtzen eta idazten dutenak.
5. **Ia euskaldun alfabetatugabeak:** euskara ondo edo nekez ulertu, nekez hitz egin, eta irakurtzen eta idazten ez dakitenak.
6. **Ia euskaldun pasiboak:** euskara ondo edo nekez ulertzen eta batere hitz egiten ez dutenak.
7. **Erdaldunak:** euskara hitz egin ez eta ulertu ere egiten ez dutenak.

3.1.1.2 Inkesta Soziolinguistikoa



Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bideratzen duen Inkesta Soziolinguistikoa, euskararen bilakaerari buruzko oinarritzko datuak eskaintzeko tresna izatea eta hamabost urteko (1991-2006) euskararen bilakaerari buruzko eta euskal lurralde guztietako informazio komuna laburbiltzen duen seriea argitaratzea du helburu.

Bi iturriren gurutzaketa tarteko, zentsua eta errolda, bost urtean behin hizkuntzei buruzko hainbat datu biltzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria osoa kontuan hartuta. Nafarroako Foru Erkidegoan, aldiz, herritarren hizkuntzaren ezagutzari buruzko datuak bildu ohi dira soilik. Iparraldean, ostera, ez da hizkuntzei buruzko galderarik egiten zentsuan.

1991. urtean burutu zen, euskararen lurraldean euskarak bizi duen errealitateri buruzko informazio komuna jaso ahal izateko asmoz, lehenbiziko Inkesta Soziolinguistikoa.

Inkestak bi helburu zehatz izan ditu hasieratik: batetik, Euskal Herrian euskararen egoerari buruzko azterketa zorrotza burutzea bost urterik behin, horrela zentsu eta errolden maiztasunarekin bat eginik erkatzeko aukera eskaintzen baita; bestetik, hori egitea euskararen lurralde guztietako informazioa bilduz, ahal den neurrian, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Nafarroako Foru Erkidegoaren eta Iparraldeko instituzio publikoen arteko lankidetzaren bidez.

2006ko Inkesta Soziolinguistikoaren fitxa teknikoa gune bakoitzean

□ Euskal Autonomia Erkidegoa

- ✓ Euskal Autonomia Erkidegoan landa-lana Ikertalde enpresak egin zuen.
 - ✓ Datu-bilketa 2006ko ekaina eta uztaila bitartean egin zen, telefono bidez eta galdetegi egituratua eta itxia erabiliz. 2006ko inkesta, telefonoz burutu zen lehena izan zen, hau da, bakoitzak aitorturikoa.
 - ✓ Lagina zehazteko, 16 urte edo gehiagoko biztanleak hartu ziren kontuan.
 - ✓ Guztira 3.600 inkesta egin ziren, eta lurraldearen arabera honela banatu ziren: 750 inkesta Araban, 1.510 inkesta Bizkaian eta 1.340 inkesta Gipuzkoan.
 - ✓ Lurralde bakoitzean, 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren banaketaren arabera haztatu ziren emaitzak, sexua, adina eta euskaldunen zein ez euskaldunen banaketa kontuan hartuta.
 - ✓ Inkestak egiteko etxebizitzaren aukeraketa geruzatua erabili zen gune soziolinguistikoaren eta udalerriaren arabera.
- Euskal Autonomia Erkidegoko lagin osoaren laginketa-errorea $\pm 2,0\%$ koa izan zen $95,5\%$ eko konfiantza-mailarako eta $p=q=50\%$. Konfiantza-maila bererako, lurraldekako laginketa-erroreak honako hauek izan ziren: $\pm 4,3\%$ koa Araban, $\pm 3,0\%$ koa Bizkaian eta $\pm 3,0\%$ koa Gipuzkoan.

□ Iparraldea

- ✓ Iparraldean landa-lana Siadeco enpresak egin zuen.
- ✓ Informazio-bilketa 2006ko azaroa eta 2007ko urtarrila bitartean egin zen, telefono bidez eta galdetegi egituratua eta itxia erabiliz.

- ✓ Lagina zehazteko, 16 urte edo gehiagoko biztanleak hartu ziren kontuan.
- ✓ Guztira 2.000 inkesta egin ziren, eta zonaldearen arabera honela banatu ziren: 750 inkesta BAMen, 750 Lapurdiko barnealdean eta 500 inkesta Nafarroa Beherean eta Zuberoan.
- ✓ Eskualde bakoitzean, 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren banaketaren arabera haztatu ziren emaitzak, sexua eta adina kontuan hartuta.
- ✓ Inkestak egiteko etxebizitzaren aukeraketa geruzatua erabili zen guneko soziolinguistikoaren eta udalerriaren arabera.
- ✓ Iparraldeko lagin osoaren laginketa-errorea $\pm 2,3\%$ izan zen $95,5\%$ eko konfiantza-mailarako eta $p=q=50\%$. Konfiantza-maila bererako, zonaldekako laginketa-erroreak honako hauek izan ziren: $\pm 3,6\%$ BAMen, $\pm 3,6\%$ Lapurdiko barnealdean eta $\pm 4,5\%$ Nafarroa Beherean eta Zuberoan.

□ Nafarroa

- ✓ Nafarroako Foru Erkidegoan landa-lana Gizaker enpresak egin zuen.
- ✓ Datu-bilketa 2006ko ekain eta uztail bitartean egin zen, telefono bidez eta galdetegi egituratua eta itxia erabiliz.
- ✓ Lagina zehazteko, 16 urte edo gehiagoko biztanleak hartu ziren kontuan.
- ✓ Guztira 1.600 inkesta egin ziren, eta eremuaren arabera honela banatu ziren: 500 inkesta eremu euskaldunean, 753 inkesta eremu mistoan eta 347 inkesta eremu ez euskaldunean.
- ✓ Lurralde bakoitzean, 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren banaketaren arabera haztatu ziren emaitzak, sexua, adina eta euskaldunen zein ez euskaldunen banaketa kontuan hartuta.
- ✓ Inkestak egiteko etxebizitzaren aukeraketa geruzatua erabili zen guneko soziolinguistikoaren eta udalerriaren arabera.
- ✓ Nafarroako Foru Erkidegoa lagin osoaren laginketa-errorea $\pm 3,3\%$ izan zen $95,5\%$ eko konfiantza-mailarako eta $p=q=50\%$. Konfiantza-maila bererako, eremukako laginketa-erroreak honako hauek izan ziren: $\pm 5,0\%$ eremu euskaldunean, $\pm 4,6\%$ eremu mistoan eta $\pm 5,7\%$ eremu ez euskaldunean.

□ Euskal Herria

- ✓ Euskal Herriko lagin osoaren laginketa-errorea $\pm 1,6\%$ izan zen $95,5\%$ eko konfiantza-mailarako eta $p=q=50\%$. Konfiantza-maila bererako, euskaldunen laginketa-errorea $\pm 2,0\%$ izan zen eta ez euskaldunen $\pm 2,6\%$.

1991n burututako I. Inkesta Soziolinguistikoaren emaitza 1995. urtean argitaratu zen Euskararen Jarraipena I izenburupean; 1996an burutu zen II. Inkesta Soziolinguistikoa, aldiz, 1999an argitaratu zen; 2001ean egin zen III. Inkesta Soziolinguistikoa, berriz, 2003an argitaratu zen; eta

2006ko abenduan egindako IV. Inkesta Soziolinguistikoa 2008an argitaratu zen.

IV. Inkesta Soziolinguistikoak hainbat ikerketa-eremu jasotzen ditu. Lau dira azpimarratzeko modukoak:

- ✓ Herritarren hizkuntza-gaitasuna edo ezagutza
- ✓ Hizkuntzaren transmisioa
- ✓ Euskararen erabilera hainbat esparrutan (etxean, lagunartean, lanean, eremu formalean, eta abar)
- ✓ Euskararekiko jarrera.

Inkesta Soziolinguistikoan hizkuntza-ezagutza bost kategoria nagusitan banatzen da:

1. **Euskal elebidunak:** euskaraz erdaraz baino errazago moldatzen direnak
2. **Elebidun orekatuak:** berdin moldatzen direnak euskaraz eta erdaraz
3. **Erdal elebidunak:** erdaraz euskaraz baino errazago moldatzen direnak
4. **Elebidun hartzaileak:** euskaraz nekez hitz egin edo hitz egin arren, ondo ulertu edo irakurtzen dutenak.
5. **Erdaldun elebakarrak:** euskaraz batere ulertu ez eta hitz egiten ez dutenak.

Aurreko puntuetan aipatu bezala, bai EASEk baita EDBak ere, beraien datuak osatzeko Inkesta Soziolinguistiko hau dute iturri.

3.1.2 Euskararen Datu Basea, EDB

Euskararen Datu-Basea (EDB) euskararen datu estatistikoen biltegi bat da, Soziolinguistika Klusterrak eta Aztikerrek elkarlanean egindakoa. Egitasmo honen helburu nagusia, euskarari buruz dagoen informazio estatistiko sakabanatua bildu, bateratu eta publikoki eskaintzea da. Han eta hemen argitaratzen diren euskarari buruzko datuetako batzuk gune bakarrean bildu ditu Euskararen Datu-Baseak, besteak beste, Euskal Herri mailako datuak eskainiz. Euskal Herri mailako datuak eskuratzeko, estimazioak egin dira.



Proiektuaren ekarpenak hiru alderditan laburbil daitezke: lurraldeen zehaztapena, datuen osotasuna eta datuak bateratzeko erabili den metodologia. Gaur egun, hiru informazio mota aurkezten ditu EDBk: euskararen ezagutzari buruzko datuak, erabilerari buruzkoak eta euskarak hezkuntzan duen tokiari buruzkoak. Datu horiek adin-taldeka, sexuaren arabera eta bilakaeraren arabera ikus daitezke esparru ezberdinetan; hau da, udalerrika –kasu batzuetan- eta hortik gora eskualdeka, herrialdeka eta Euskal Herri mailan.

Euskararen Datu-Baseak euskararen ezagutza datuetarako biltzen dituen datuen iturriak ondorengoak dira: EUSTAT eta IEN: Biztanleria zentsuak eta Biztanleriaren estatistikak (1986, 1991, 1996 eta 2001). Euskal Herri osoko emaitzen kalkulua egiteko, halaber, Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesta (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Euskal Kultur Erakundeak egina, 1991koa, 1996koa eta 2001ekoa) erabiltzen du.

Euskararen Datu Baseak ere hizkuntza-ezagutza hiru kategoria nagusitan banatzen du:

1. **Euskaldunak:** euskara “ondo” ulertzen eta “ondo” hitz egiten dutenak, euren erantzunen arabera, betiere.
2. **Ia euskaldunak:** euskara “ondo” edo “nekez” ulertu eta “nekez” hitz egiten dutenak.
3. **Erdaldunak:** euskara ulertzen ez dutenak eta hitz egiten ez dutenak.

Adinaren arabera aurkezten den informazioari dagokionez, honako adin taldeekin lan egiten da EDBn:

- Haurrak: 2-14 urte artekoak
- Gazteak: 15-24 urte artekoak
- Helduak: 25-64 urte artekoak
- Adinekoak: 65 urtetik gorakoak

Lan honetan agertzen diren Euskal Herriko adinaren araberako hizkuntza gaitasun datuak (14.orrialdea) Euskararen Datu Basetik jasotakoak dira.

3.2 Ezagutzaren bilakaeraren emaitzak (1991-2006) Euskal Herrian, Bizkaian eta Ondarroan

Txostenaren atal honetan, Euskal Herriko, Bizkaiko eta Ondarroako hizkuntza gaitasunaren datuak azaltzen dira, hizkuntza gaitasun maila orokorraren eta adinaren arabera sailkatuta.


Lehen aipatu bezala, Euskal Herriko datuak Inkesta Soziolinguistikotik (EAS) jasotakoak dira eta Bizkaiko eta Ondarroako datuak berriz, Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuen (Eustat) datu basetik ateratakoak.

Beheko taulan ikus daitekeen bezala, Inkesta Soziolinguistikoak bost gaitasun kategoria erabiltzen ditu ezagutzaren sailkapena egiteko, Biztanleria eta Etxebizitzen Zentsuak berriz zazpi kategoria. Eta lan honetan hizkuntza gaitasunaren maila orokorra aztertzeke sailkapen hori erabili da. Hala ere, kategoria hauek, adinaren arabera ezagutzaren azterketa egiteko erabili den beste sailkapen batekin baliokidetu daitezke; euskaldunak, ia-euskaldunak eta erdaldunak. Baliokidetasun hori taularen azken zutabeaz azaltzen dena izango litzateke:

Azterketa eremua	Iturria	Gaitasun kategoriak	Baliokidetasuna
Euskal Herria	Inkesta Soziol. (EAS)	1. Euskal elebidunak 2. Elebidun orekatuak 3. Erdal elebidunak 4. Elebidun hartzaileak 5. Erdaldun elebakarrak	1+2+3: Euskaldunak 4: Ia-euskaldunak 5: Erdaldunak
Bizkaia	Biztanleria eta Etxebizitzen Zentsua (Eustat)	1. Euskaldun alfabetatuak 2. Euskaldun erdi-alfabetatuak 3. Euskaldun alfabetatugabeak 4. Ia euskaldun alfabetatuak 5. Ia euskaldun alfabetatugabeak 6. Ia euskaldun pasiboak 7. Erdaldunak	1+2+3: Euskaldunak 4+5+6: Ia-euskaldunak 7: Erdaldunak
Ondarroa	Biztanleria eta Etxebizitzen Zentsua (Eustat)	1. Euskaldun alfabetatuak 2. Euskaldun erdi-alfabetatuak 3. Euskaldun alfabetatugabeak 4. Ia euskaldun alfabetatuak 5. Ia euskaldun alfabetatugabeak 6. Ia euskaldun pasiboak 7. Erdaldunak	1+2+3: Euskaldunak 4+5+6: Ia-euskaldunak 7: Erdaldunak

3.2.1 HIZKUNTZA-GAITASUN MAILA OROKORRA

□ Euskal Herria



Datu erlatiboetan:


	1. Euskal elebidunak	2. Elebidun orekatuak	3. Erdal elebidunak	4. Elebidun hartzaileak	5. Erdaldun elebakarrak	6. Guztira
1991	%7,70	%6,17	%8,42	%7,71	%70,00	%100,00
1996	%7,53	%7,61	%9,21	%14,13	%61,51	%100,00
2001	%7,13	%7,09	%11,17	%10,55	%64,06	%100,00
2006	%7,90	%7,79	%10,01	%15,37	%58,92	%100,00

1. grafikoa: Euskal Herriko hizkuntza gaitasunaren maila orokorra
Iturria: EAS

Grafikoan ikus daitekeen bezala, Euskal Herrian erdaldun elebakarrak dira nagusi, hau da, euskaraz ulertu ez eta hitz egiten ez dutenak %60tik gora dira. Hala ere erdaldun elebakarren bilakaerak azken hamabost urteetan zehar beheranzko joera izan du, eta gutxi gora-behera 134.000 biztanle gutxiago daude Euskal Herrian erdaldun elebakarrak direnak. Alderantziz gertatu da euskal elebidun, elebidun orekatu eta elebidun hartzaileen artean. Hiru kategoria hauek goranzko joera izan dute azken urteetan. Honen ondorioz, gaur egun jende gehiago dago euskaraz hitz egin, ulertu edo irakurtzen duena.

Orokorrean, euskararen hizkuntza gaitasunak Euskal Herrian goranzko joera daukala esan behar da, nahiz eta oraindik ere erdaldun elebakarren kopurua askoz handiagoa izan.

□ Bizkaia



Datu erlatiboetan:

	1. Euskal. alfab.	2. Euskal. erdi-alfab.	3. Euskal. alfab. gabe	4. Ia-euskal. alfabetatuak	5. Ia-euskal alfab. gabe	6. Ia-euskal pasiboak	7. Erdald.	8.Guztira
1991	%16,21	%10,37	%4,05	%12,10	%2,46	%3,01	%51,80	%100,00
1996	%19,45	%14,58	%3,46	%11,91	%2,27	%2,87	%45,47	%100,00
2001	%20,14	%15,76	%3,56	%13,66	%2,51	%3,83	%40,54	%100,00
2006	%24,02	%19,64	%3,71	%11,50	%2,81	%3,34	%34,98	%100,00


2. grafikoa: Bizkaiko hizkuntza gaitasunaren maila orokorra
Iturria: Eustat, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua

Bizkaiko lurraldeko datuak jasotzen dituen grafiko honetan ere, daturik esanguratsuenen artean, erdaldunen bilakaerak azken urteetan beheranzko joera izan duela ikus daiteke, Euskal Herriko datuetan atzeman daitekeen bezala. Hamabost urtean erdaldunen kopurua 183.000 biztanletan jaitsi da Bizkaian, nahiz eta oraindik ere multzo honetan kokatzen diren lurralde honetako biztanle gehienak.

Euskaldun alfabetatuen bilakaerak eta euskaldun erdi-alfabetatuen bilakaerak aldiz, goranzko joera daukala argi ikus daiteke grafikoan. Bi multzo hauek batera aztertuz, multzo hauetan hamabost urtetan ia 280.000 biztanle gehiago daudela ikus daiteke.

Orokorrean, Euskal Herrian bezala Bizkaian ere, euskaldunen joera goranzkoa dela esan dezakegu erdaldunena beheranzkoa den bitartean.

□ Ondarroa



Datu erlatiboetan:

	1. Euskal. alfab.	2. Euskal. erdi-alfab.	3. Euskal. alfab. gabe	4. Ia-euskal. alfabetatuak	5. Ia-euskal. alfab. gabe	6. Ia-euskal. pasiboak	7. Erdald.	8. Guztira
1991	%44,79	%25,60	%8,06	%2,37	%4,92	%5,44	%10,11	%100,00
1996	%49,46	%28,15	%7,92	%1,54	%4,06	%4,29	%7,01	%100,00
2001	%60,53	%20,85	%3,61	%1,85	%3,88	%3,27	%7,56	%100,00
2006	%60,54	%17,86	%2,66	%4,52	%4,08	%2,75	%7,60	%100,00

3. grafikoa: Ondarroako hizkuntza gaitasunaren maila orokorra
Iturria: Eustat, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua

Euskal Herrian eta Bizkaian ez bezala, Ondarroan euskaldun alfabetatuen multzoan biltzen dira herriko biztanle gehienak, %60 baino gehiago. Multzo honen hamabost urteko bilakaera aztertzen baldin badugu, bilakaera positiboa izan dela ikus daiteke, azken neurketaldian mantendu egin zelarik. Mantentze honen arrazoiaren artean, biztanle kopuruaren jaitsiera edota gazteen gutxitzea (alfabetatu gutxiago ondorioz) egon daitezke.

Gainontzeko multzoak begiratuta, euskaldun erdi-alfabetatuen eta euskaldun alfabetatu gabeen azken urteetako joera beheranzkoa izan dela ikus daiteke.

Ia euskaldun alfabetatuen emaitzek gora egin duten bitartean, ia euskaldun alfabetatugabeen emaitzak mantendu egin direla esan daiteke eta ia euskaldun pasiboen bilakaerak beherantz egin du.

Erdaldunen multzoaren proportzioak ere mantendu egin direla esan dezakegu.

Ondorioz, multzo gehienek beheranzko joera dutela esan dezakegu. Joera honen arrazoi nagusia, biztanle kopuruaren gutxitzean egon daitekeelarik. Hala ere, Ondarroako biztanle gehienak euskaldunen hiru multzoetan kokatzen dira, azken neurketaldiaren arabera % 81 pasatxo hain zuzen ere.

3.2.2 HIZKUNTZA-GAITASUNA ADINAREN ARABERA

Bai EASEk, bai Eustatek baita EDBk ere, adinaren arabera ezagutza datuak modu ezberdinetan sailkatuta ematen dituzte:

- ✓ EASEk adin tarte hauetan banatzen ditu datuak: 16-24 , 25-34, 35-49, 50-64 eta 65 urtetik gorakoak.
- ✓ EDBk adin tarte hauetan banatzen ditu datuak: 2-14, 15-24, 25-64 eta 65 urtetik gorakoak
- ✓ Eustatek adin tarte hauetan banatzen ditu datuak: 2-4, 5-9, 10-14, 15-19, 20-24, 25-29, 30-34, 35-39, 40-44, 45-49, 50-54, 55-59, 60-64, 65-69, 70-74 eta 75 urtetik gorakoak.

Behean agertzen diren grafikoetan aldiz, kale erabileraren datuak jasotzeko erabilitako irizpidearen arabera agertzen dira ezagutza datuak.

↙	Haurrak:	2 urtetik 14 urte bitartekoak
↙	Gazteak:	15 urtetik 24 urte bitartekoak
↙	Helduak:	25 urtetik 64 urte bitartekoak
↙	Adinekoak:	65 urtetik gorakoak

Modu honetan, askoz errazagoa egingo zaigu datuen arteko konparaketak egitea. Horretarako, beharrezkoak izan diren datuen arteko batuketak egin dira.


Taula honetan azaltzen dira hurrengo grafikoetan eremu bakoitzerako erabilitako datuen iturriak, gaitasun kategoriak eta adin tarteak zeintzuk izan diren:

Azterketa eremua	Iturria	Gaitasun kategoriak	Adin tarteak
Euskal Herria	EDB	- Euskaldunak - Ia- euskaldunak - Erdaldunak	- Haurrak - Gazteak - Helduak - Adinekoak
Bizkaia	Eustat	- Euskaldunak - Ia- euskaldunak - Erdaldunak	- Haurrak - Gazteak - Helduak - Adinekoak
Ondarroa	Eustat	- Euskaldunak - Ia- euskaldunak - Erdaldunak	- Haurrak - Gazteak - Helduak - Adinekoak

□ Euskal Herria

Euskal Herriko adinaren arabera ezagutza datuak Euskararen Datu Basetik hartu ditugula aipatu dugu hasieran. Ondorengo grafikoetan agertzen dira 1991tik 2001era jasotako ezagutza datuak (datu base honek ez digu 2006ko daturik eskaintzen) baina datu horiekin nahikoa izango dugu joera orokorra zein izan den ikusteko.

Haurrak (2-15 urte)



Datu erlatiboetan:

	1. Euskaldunak	2. Ia- euskaldunak	3. Erdaldunak	4. Guztira
1991	%45,81	%24,51	%29,67	%100,00
1996	%41,25	%24,69	%34,04	%100,00
2001	%29,90	%27,92	%42,16	%100,00


4. grafikoa: Euskal Herriko haurren hizkuntza gaitasuna
Iturria: Euskararen Datu Basea

Grafikoan ikusi daitekeen daturik esanguratsuena, 1991tik 2001era orokorrean haurren kopuruak izandako beherakada da.

Haurren ezagutzari dagokionez, haur euskaldunen bilakaera goranzkoa izan dela ikus daiteke, nahiz eta kopuru txikian izan. Ia-euskaldun eta erdaldunen multzoek berriz, beheranzko joera azpimarragarria izan duela argi agertzen da.

Ondorioz, Euskal Herri mailan gero eta haur euskaldun gehiago eta erdaldun gutxiago dagoela esan daiteke.

Gazteak (16-24 urte)



Datu erlatiboetan:


	1. Euskaldunak	2. Ia- euskaldunak	3. Erdaldunak	4. Guztira
1991	%23,75	%29,27	%46,97	%100,00
1996	%32,69	%29,66	%37,63	%100,00
2001	%40,33	%28,39	%31,27	%100,00

5. grafikoa: Euskal Herriko gazteen hizkuntza gaitasuna
Iturria: Euskararen datu Basea

Euskal Herriko gazteen grafiko honetan ikus daitekeen daturik esanguratsuena, hau da: 1991an gazte gehienak erdaldunen multzoan kokatzen baziren ere, 2001eko datuen arabera, gazte gehienak euskaldunen multzoan kokatzen ziren. Beraz, haurren kasuan bezala, gazte euskaldunak gero eta gehiago direla esan daiteke. Gazte erdaldunen bilakaeraren joerak berriz nabarmen egiten du behera, hamar urtean %47tik %31ra jaitsi delarik multzo honen kopurua.

Beraz, Euskal Herriko haurren kasuan bezala, gazteen mailan ere gero eta euskaldun gehiago dagoela eta ia euskaldun eta erdaldun joera beheranzkoa dela azpimarratu daiteke.

Helduak (25-64 urte)




Datu erlatiboetan:

	1. Euskaldunak	2. Ia- euskaldunak	3. Erdaldunak	4. Guztira
1991	%20,78	%11,87	%67,33	%100,00
1996	%21,86	%14,45	%63,67	%100,00
2001	%22,24	%20,38	%57,37	%100,00

6. grafikoa: Euskal Herriko helduen hizkuntza gaitasuna
Iturria: Euskararen datu Basea

Haur eta gazteen multzoan ez bezala, gizartearen zahartzearen ondorioz helduen multzoan gero eta biztanle gehiago dagoela ikus daiteke. Euskal Herriko helduen kasuan biztanle gehienak erdaldunen multzoan kokatzen dira, gutxi gora-behera %60. Hala ere tipologia honetako biztanleen bilakaera, inkesten arabera beheranzkoa izan da. Gorakadarik handiena izan duen multzoa, ia-euskaldunena izan da, beraz, euskara ulertzen duten biztanleak gero eta gehiago direla esan dezakegu. Nahiz eta kopuru txikiagoan izan, euskaldunen multzoak ere gora egin du.

Adinekoak (65 urtetik gorakoak)



Datu erlatiboetan:

	1. Euskaldunak	2. Ia- euskaldunak	3. Erdaldunak	4. Guztira
1991	%26,99	%5,12	%67,87	%100,00
1996	%26,22	%5,61	%68,15	%100,00
2001	%23,92	%7,20	%68,87	%100,00

7. grafikoa: Euskal Herriko adinekoen hizkuntza gaitasuna
Iturria: Euskararen Datu Basea

Helduak bezala, Euskal Herriko adinekoen gehiengoa ere erdaldun elebazarren multzoan kokatzen da. Baina beste adinetan ez bezala, adineko erdaldunen bilakaera, nahiz eta kopuru txikian izan, goranzkoa izan dela ikus daiteke.

Euskaldunen taldearen bilakaera beheranzkoa izan da, 1991an %27koa zelarik eta 2001ean ia %24koa. Hamar urtean goranzko bilakaera nabarmena izan duen kategoria, ia euskaldunen taldea izan da.


Laburbilduz esan dezakegu 1991tik 2001era haur eta gazteen euskaldun kopuruaren joera goranzkoa izan den heinean, erdaldunena beheranzkoa izan dela. Bi adin-talde hauetan, biztanleen kopuru orokorrak ere behera egin duela argi ikus daiteke grafikoetan.

Heldu eta adinekoen kopuru orokorrak berriz, nabarmen egin du gora denbora tarte honetan. Heldu eta adinekoen ezagutzari dagokionez, helduen kasuan euskaldun eta ia-euskaldunen multzoen joera goranzkoa izan da eta erdaldunen taldearen joera berriz, beheranzko izan da. Bestalde adinekoen kasuan, euskaldunen taldeak nabarmen egin du behera eta erdaldunen taldeak berriz gora, nahiz eta kopuru txikian izan. Ulergarria da hori, alde batetik urteak aurrera joan ahala helduen adin-taldeko biztanle batzuk (erdaldun elebazarren kopururik handiena duena) adineko adin-taldera pasa direlako eta bestetik, adinekoen artean euskaldunenak hiltzen ari direlako.

Bizkaiko eta Ondarroako adinaren arabeko ezagutza datuak ikusi aurretik, ondorengoa aipatu beharra dago: baliteke zenbait kasutan datu arraro samarrak eta ez oso koherenteak ateratzea, batez ere 2006ko datuetan. Honen arrazoia, 2006an ezagutzaren datuak jasotzeko Eustatek metodologia aldatu zuela da, hau da, aurreko neurketetan erabilitako irizpideak aldatu zituela. Ondorioz, azaltzen diren datuak, batez ere 2006koak, orientatiboak direla azpimarratu nahiko nuke, taldeak gero eta txikiagoak eta segmentatuagoak izan, datuak gero eta nahasgarriagoak bilakatzen direlako.

□ Bizkaia

Haurrak (2-14 urte)




Datu erlatiboetan:

	1. Euskaldunak	2. Ia- euskaldunak	3. Erdaldunak	4. Guztira
1991	%26,69	%38,30	%35,01	%100,00
1996	%42,77	%34,41	%22,82	%100,00
2001	%52,01	%33,48	%14,51	%100,00
2006	%61,03	%26,63	%12,34	%100,00

8. grafikoa: Bizkaiko haurren hizkuntza gaitasuna
Iturria: Eustat, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua

Bizkaiko haurren kasuan argi ikusten da azken neurketaldietako joera zein izan den: haur euskaldunen kopurua gorantz doan heinean, ia-euskaldun eta erdaldunak diren haurren joerak nabarmen egin du behera. Hamabost urteko bilakaeran, haur euskaldunak hirukoiztu egin dira eta haur erdaldunak berriz erdira jaitsi dira, %35etik %12,34ra zehatz-mehatz.

Gazteak (15-24 urte)



Datu erlatiboetan:


	1. Euskaldunak	2. Ia- euskaldunak	3. Erdaldunak	4. Guztira
1991	%19,89	%39,71	%40,40	%100,00
1996	%31,03	%41,59	%27,38	%100,00
2001	%40,33	%40,98	%18,70	%100,00
2006	%59,73	%25,46	%14,81	%100,00

9. grafikoa: Bizkaiko gazteen hizkuntza gaitasuna
Iturria: Eustat, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua

Bizkaiko gazteen kasuan ere, haurren multzoan egindako irakurketa berdina egin daiteke, hau da, gazte euskaldunen joera goranzkoa izan da urteetan egindako neurketaldietan eta gazte ia-euskaldun eta erdaldunen kopuruak beherantz doaz etengabe. 2006ko neurketaren arabera, Bizkaiko gazteen %85 gutxi gora-behera euskaldun eta ia-euskaldunen multzoan kokatzen da.

Bestalde, Bizkaiko gazteen kopuru orokorrak izan duen beherakada ere aipatu beharra dago.

Helduak (25-64 urte)



Datu erlatiboetan:


	1. Euskaldunak	2. Ia- euskaldunak	3. Erdaldunak	4. Guztira
1991	%15,57	%12,90	%71,53	%100,00
1996	%18,15	%16,08	%65,78	%100,00
2001	%18,52	%24,82	%56,66	%100,00
2006	%25,42	%26,36	%48,23	%100,00

10. grafikoa: Bizkaiko helduen hizkuntza gaitasuna
Iturria: Eustat, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua

Helduen kasuan ere, joerak antzerakoak direla ikusten dugu; euskaldun eta ia-euskaldunen kopuruak gorantz egiten ari dira eta erdaldunen kopuruak beherantz.

Hala ere, haur eta gazteen taldearekin konparatuz, Bizkaiko helduen biztanle gehienak erdaldunen multzoan aurkitzen direla ikusten da. Azken neurketaren arabera, gutxi gora-behera biztanleen % 48 dago erdaldunen taldean.

Adinekoak (65 urtetik gorakoak)



Datu erlatiboetan:

	1. Euskaldunak	2. Ia- euskaldunak	3. Erdaldunak	4. Guztira
1991	%22,57	%5,64	%71,79	%100,00
1996	%21,68	%5,59	%72,73	%100,00
2001	%19,02	%7,64	%73,34	%100,00
2006	%18,72	%9,12	%72,17	%100,00

11. grafikoa: Bizkaiko adinekoen hizkuntza gaitasuna
Iturria: Eustat, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua

Bizkaiko adinekoen kasuan, adineko erdaldunen biztanleen bilakaera mantendu egin da urteetan zehar. Euskaldunen multzoan proportzioek beheranzko joera izan dute eta ia-euskaldunen multzoan, gutxi bada ere, kopuruek gora egin dute. Helduen taldean gertatzen den bezala, adineko biztanle gehienak ere erdaldunen taldean aurkitzen dira.


Laburtuz, Bizkaiko haur, gazte eta helduen multzoetan euskaldun eta ia-euskaldunen kopuruen bilakaera goranzkoa da eta erdaldunena berriz beheranzkoa. Adinekoen taldean bestalde, erdaldunen kopurua mantendu egin da urteetan zehar. Adineko biztanleen kopuru orokorrak ere gora egin duela aipatu beharra dago.

Bizkaiko haur eta gazte gehienak euskaldun edo ia-euskaldun diren bezala, helduen %48 eta adinekoen %72, erdaldunen multzoan kokatzen da oraindik ere.

□ Ondarroa

Ondorengo lerroetan azaltzen diren euskararen ezagutzaren datuak adinaren arabera, Eustat webgunetik jasotakoak dira. Datu eguneratuenak jaso ahal izateko, hau da 2006ko datuak ere jaso ahal izateko, Ondarroa-Markinako ezagutzaren datuak jaso behar izan ditugu eta horrela azaltzen dira ondorengo grafikoetan.

Markinako datuak txertatuta egon arren, Ondarroako errealitatea ezagutzeko baliagarriak izan daitezkeela pentsatzen dut, izan ere herri bien bilakaera ezagututa, proportzioak mantendu egiten direla uste baitut. Beraz, hurrengo lerroetan Ondarroari dagokion irakurketa jaso arren, kontutan hartzekoa izango da datu horietan Markinako datuak ere txertatuta daudela.



Datu erlatiboetan:


	1. Euskaldunak	2. Ia- euskaldunak	3. Erdaldunak	4. Guztira
1991	%84,48	%12,00	%3,52	%100,00
1996	%90,13	%8,88	%1,00	%100,00
2001	%90,11	%8,52	%1,37	%100,00
2006	%78,36	%17,31	%4,34	%100,00

12. grafikoa: Ondarroa- Markinako haurren hizkuntza gaitasuna
Iturria: Eustat, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua

Grafikoan argi ikus daitekeen bezala, haurren kopuruaren bilakaerak nabarmen egin du behera, 1991tik ia erdira jaitsi delarik. Datu erlatiboetan erreparatuz gero, ikus daiteke euskaldunen taldearen bilakaera goranzkoa izan zela lehen bi neurketetan eta nabarmen behera egin duela azken neurketan. Eta horrekin batera, erdaldunen joerak behera egin zuen lehen bi neurketetan eta gora egin zuen 2006ko neurketan. Honen arrazoi nagusia, bai Ondarroara baita Markinara ere azken urteetan etorri diren etorkin kopurua izan daiteke.

Hala ere haur gehienak euskaldun eta ia-euskaldunen multzoan kokatzen direla argi ikusten da grafikoan, %95 gutxi gora-behera.

Gazteak (15-24 urte)




Datu erlatiboetan:

	1. Euskaldunak	2. Ia- euskaldunak	3. Erdaldunak	4. Guztira
1991	%92,43	%5,41	%1,34	%100,00
1996	%96,24	%2,72	%1,04	%100,00
2001	%96,83	%1,83	%1,34	%100,00
2006	%91,51	%5,18	%3,31	%100,00

13. grafikoa: Ondarroa- Markinako gazteen hizkuntza gaitasuna
Iturria: Eustat, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua

Gazteen kasuan ere, gazteen kopuruak behera egin duela ikus daiteke, 1991an 8.188 gazte zeuden eta 2006an 5.737 gazte. Gazte euskaldunen eta ia-euskaldunen datuak antzekoak direla ikus dezakegu 1991ko eta 2006ko datuak aztertzen baditugu eta erdaldunen bilakaera goranzkoa izan dela ere hauteman daiteke, batez ere azken neurketaldi biak aztertuz gero. Hala ere, haurretan bezala gazteen multzoan ere gazte gehienak, ia %100, euskaldun eta ia-euskaldunen multzoan kokatzen dira.

Helduak (25-64 urte)



Datu erlatiboetan:


	1. Euskaldunak	2. Ia- euskaldunak	3. Erdaldunak	4. Guztira
1991	%77,06	%12,04	%10,90	%100,00
1996	%78,52	%13,57	%7,91	%100,00
2001	%79,39	%13,21	%7,41	%100,00
2006	%78,25	%13,68	%8,07	%100,00

14. grafikoa: Ondarroa- Markinako helduen hizkuntza gaitasuna
Iturria: Eustat, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua

Haurretan eta gazteetan ez bezala, helduen kopuruak gora egin duela ikus daiteke. Ezagutza datuetan erreparatuz, euskaldunen eta ia-euskaldunen bilakaera mantentzea izan dela esan daiteke eta erdaldunen bilakaera berriz beheranzkoa izan dela ikus dezakegu.

Helduen kasuan ere, biztanle gehienak euskaldun eta ia-euskaldunen multzoan kokatzen dira baina haur eta gazteen multzoan baino kopuru txikiagoan, %90 inguru.

Adinekoak (65 urtetik gorakoak)



Datu erlatiboetan:

	1. Euskaldunak	2. Ia- euskaldunak	3. Erdaldunak	4. Guztira
1991	%90,23	%4,11	%5,66	%100,00
1996	%90,60	%4,09	%5,31	%100,00
2001	%89,02	%5,43	%5,55	%100,00
2006	%87,31	%6,87	%5,82	%100,00

15. grafikoa: Ondarroa- Markinako adinekoen hizkuntza gaitasuna
Iturria: Eustat, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua

Beste adin-multzoetan ez bezala, adinekoen kopuruak gora egin duela ikusten da grafikoan. Adineko euskaldunen bilakaera proportzioan beheranzkoa izan den heinean, ia-euskaldunen kopuruak gora egin du eta erdaldunen multzoa mantendu egin da.

Laburbilduz, Ondarroako eta Markinako adin talde guztiak (haurrak, gazteak, helduak eta adinekoak) euskaldunen eta ia euskaldunen multzoan kokatzen direla argi ikusten da, guztietan %90etik gorako kopuruan baina haurren eta gazteen kasuan, euskaldunak eta ia-euskaldunak direnak ia %100 izatera heltzen dira.

4. EUSKARAREN ERABILERA

4.1 Erabileraren neurketa egiteko erabilitako metodologia

4.1.1 Kale neurketaren ezaugarri garrantzitsuenak

- ✓ **Aztergai duen eremua Euskal Herri osoa da.** Muga administratibo guztiak gaindituta, neurketak Euskal Herri osoan egiten dira: Araban, Bizkaian, Gipuzkoan, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian.
- ✓ **Neurketa gunea kalea da.** Kalea da hizkuntza gaitasun, hizkuntza joera eta pentsaera ezberdinetako jendea topatzeko espazioa. Toki irekiak bakarrik neurtzen dira eta toki itxiak neurketatik at gelditzen dira.
- ✓ **Behaketa bidezko datu bilketa da.** Inkesta bidez egindako ikerketetan ez bezala, honetan zuzeneko behaketa erabiltzen da ezertxo ere galdetu gabe. Inkesta bidez, norberak bere buruari aitortzen dion erabilera maila jasotzen da eta kale neurketetan berriz, hitz egiten ari denari ez zaio ezer galdetzen baizik eta entzun eta hizkuntza jasotzen da modu objektiboan. Hiztunek, bada, ez dakitenez behatuak direnik, neurtzaileak hiztunaren joera naturala jasotzen du eta horrela emaitza fidagarriagoak lortzen dira.
- ✓ **Kalean entzuten diren elkarrizketak neurtzen dira.** Entzun eta zenbatu diren pertsona horiek leku eta une horretan zein hizkuntza zerabilten adierazten dute datuek. Egiten diren neurketak laginketa bidezkoak izanik, datuek une eta leku bakoitzeko batz besteko datuak islatzen dituzte.
- ✓ **Datuen adierazgarritasuna.** Neurketa egin den tokian eta unean (egunean eta orduan) zenbat lagun ari den euskaraz (edo erdaraz) hitz egiten adierazten dute datuek.
- ✓ **Datuak eta joerak.** Kaleko elkarrizketetan euskararen erabilera zenbatekoa den neurtzeaz gain, urteetan egondako joerak ere ikusten dira.
- ✓ **Neurtzailearen ibilbidea.** Herri bakoitzean ibilbide bat edo batzuk zehazten dira. 15.000 biztanle baino gutxiago dituzten herrietan ibilbide bakarra egiten da eta gehiago dituztenetan 10.000 pertsonako, ibilbide bat gehitzen da. Normalean neurketa batetik bestera ibilbideak errepikatu egiten dira

herrian aldaketa esanguratsurik (espazio urbanizatuak...) eman ez baldin bada behinik behin.

- ✓ **Neurtzailearen eginkizunak.** Neurketak irauten duen orduetan, ibilbidean zehar jira eta bira ibiltzen da eta entzuten dituen elkarrizketak neurtzen ditu.


4.1.2 Orain arteko ibilbidea: V. Kale neurketa

Lehen kale neurketa 1989an egin zen eta geroztik, lau urtean behin errepikatu ziren 2001era arte; 1993an , 1997an eta 2001ean. 2006ko bosgarren neurketa, bost urte igaro ondoren egin zen eta aurrerantzean horrela jarraitzea erabaki zen. Beraz, bost urtean behin egingo da Euskal Herriko kale neurketa. Modu honetan, errolda urtearekin bat egingo da eta ezagutza eta erabilera datuen interpretazioak urte berekoak izango dira.

□ Ezaugarriak

- 2006ko neurketan **185.316 pertsona** behatu ziren; 153.969 gaztelaniaz, 27.172 euskaraz eta 4.175 beste hizkuntza batzutan.
- **62 udalerritan** egin ziren behaketak:

Lurralde bakoitzean behatutako herri eta pertsona kopurua		
Araba	4 herri	24.239 pertsona
Bizkaia	18 herri	70.669 pertsona
Gipuzkoa	16 herri	49.798 pertsona
Nafarroa garaia	13 herri	33.636 pertsona
Ipar Euskal Herria	11 herri (Lapurdin 7, Nafarroa Behean 2 eta Zuberoan 2)	6.974 pertsona



16. grafikoa: 2006an behatutako pertsona kopurua
Iturria: Bat, Soziolinguistika aldizkaria

- Ipar Euskal Herrian lortutako emaitzak hiru herrialdeen batura dira herrialde bakoitzean behatutako pertsona kopurua txikia izan baitzen.
- 400 pertsona inguru aritu ziren neurketak egiten eta horretarako guztiek beharrezko prestakuntza jaso zuten.
- Aurreko hiru neurketetan 160 udalerri inguru neurtu baziren ere, azken neurketan udalerri kopurua murriztu egin zen.
- Udalerri gutxiago neurtzeko erabakia hartzeak eragina izan zuen eta herrien aukeraketarako diseinu berri bat egin behar izan zen.
- Datuak murriztearen ondorioz, ezin izan ziren eskualde mailako balorazioak egin.
- Sexuaren, taldeen osaera eta haurren presentziaren arabera neurketak Hego Euskal Herriko hiriburuetan bakarrik egin ziren.

□ Neurketa egunak eta orduak

Aurreko neurketa guztiak **azaroan** egin ziren arren, azken hau urriaren 18an eta 21ean egitea erabaki zen, datu-bilketa neguko ordu aldaketa baino lehen egiteko eta modu horretan kalean jende gehiago behatu ahal izateko. Neurketa ordu guztiak goizean 10:00-13:00 bitartean eta arratsaldean 16:00-20:00 bitartean egin ziren, herrialdeen arabera. Neurketa bakoitza bi ordukoa izan zen.

□ Neurtutako aldagaiak

Behaketetan ondorengo aldagaiak jaso ziren:

- **Erabilitako hizkuntza.** Orain arte, hiztuna euskaraz edo gaztelaniaz/ frantsesez ari zen neurtzen zen. Azken neurketan, beste hizkuntzak ere aztertu ziren hauen presentzia gero eta handiago delako gure kaleetan. Bestalde, bakarrizketak ere jaso ziren; eskuko telefonoko elkarrizketak, etxe atarietako interfonoetako elkarrizketak eta animaliekin hitz egindakoak ere.
- **Adina.** Lau adin talde berezi ziren: haurrak (0-14 urte), gazteak (15-24 urte), helduak (25-64 urte) eta adinekoak (65etik aurrera), beti ere estimatutako adina.
- **Sexua.** Emakumezkoa ala gizonetzkoa zen jaso zen.
- **Taldearen osaera.** Elkarrizketan parte hartu zutenak adin talde berekoak ziren edo ez ere aztertu eta jaso zen.
- **Haurren presentzia.** Haurren arteko elkarrizketak jasotzeaz gain, adin talde ezberdinekoen artean hiru egoera ere jaso ziren: haurren presentziarik gabeko elkarrizketak, haurrak presente egon arren elkarrizketan parte hartzen ez zuten elkarrizketak eta haurrak presente egon eta parte hartzen zutenak.

****Ikus eranskinetan neurketak egiteko erabilitako fitxak***

□ Udalerrriak aukeratzeko erabilitako irizpideak

1989ko lehenengo neurketan 10.000 biztanletik gorako udalerri guztiak neurtu ziren.

Baina 1993, 1997 eta 2001eko neurketetan, Hego Euskal Herrian 5.000 biztanletik gorako herri guztiak neurtu ziren, eta 5.000 biztanletik beherako herri kopuru osoaren %10. Lagin horren aukeraketa hitzun kopuruaren eta euskaldun kopuru tipologiaren arabera egin zen. Ipar Euskal Herrian 1.000 biztanletik gorako herri guztiak neurtu ziren.

Azken neurketan berriz, 62 udalerri neurtu ziren. Aukeraketa honako irizpide hauen arabera egin zen:

- 1993ko, 1997ko eta 2001eko neurketen datuak izatea
- Hiru urte horietan emaitza koherenteak izatea, gora-behera nabarmenik gabe
- 1.000 biztanle baino gehiagoko udalerriak izatea
- Hego Euskal Herriko lurralde bakoitzean lau zonalde linguistikotako udalerriak neurtzea eta ahal izanez gero, eskualde guztietan neurtutako udalerriren bat izatea.

Irizpideak hauek izan arren, zenbait salbuespen ere egon ziren.

Hego Euskal Herrian 51 udalerri aukeratu ziren eta Ipar Euskal Herrian 11 udalerri.

4.1.3 Ondarroan egindako kale erabileraren neurketaren hainbat ezaugarri zehatz.

Ondarroan egindako kale erabileraren neurketan jasotako datuak modu egokian interpretatzeko, komenigarria iruditzen zait lehenik eta behin herri honi buruzko azalpen txikitxo bat ematea.

Ondarroa udalerrriaren ezaugarriak.

Ondarroa, Bizkaiko ipar-ekialdean dagoen kostaldeko udalerri euskalduna da (euskararen ezagutza %83,88 2001eko datuen arabera), Lea-Artibai eskualdean kokatuta dagoena. Bilbotik 60 kilometrora dago, Bizkaiko udalerririk ekialdekoena da, Gipuzkoarekin muga egiten duena.

Arrantzaren inguruan eraiki dute herriko ekonomia, batez ere azken mendeetan.

Gaur egun 9.028 biztanle ditu, 4.482 emakumeak eta 4.546 gizonezkoak. XX. mendearen hasieran 3.619 biztanle baino ez zituen baina hamarkadak

aurrera egin ahala, goraka joan zen kopurua, gorena 1981ean eskuratu zela, 12.150 biztanle. Ordutik, ordea, biztanleria beheraka joan da etengabe, eta urtero dozenaka biztanle galdu ditu. Ondarroak daukan erliebe zailak etxebizitza berriak ezin eraikitzea dakar, eta horregatik, herriko biztanle asko inguruko herrietara bizitzera joan dira.

Azken hamarkadan, Espainiar Estatutik kanpoko etorkin ugari etorri da Ondarroara. Herrialde askotakoak dira, baina batez ere, Saharaz hegoaldeko Afrikakoak. Etorkin horiek, udalerriaren sektore tradizionalenean behar egiten dute: arrantzan.

Itsasoarekin ditu lotuta herriak lan-jarduera nagusiak. Arrantza portua Euskal Herriko kairik garrantzitsuena da gaur egun alturakori dagokionez. Arrain-kontserbak, ontzigintza eta ontzi-konponketa eta mantentzea ere azpimarratzekoak dira. Horrez gain, Ondarroa inguruan eremu industrial berriak atondu dira, bertan enpresa berri asko ezarri direla.



Ondarroako erabileraren neurketaren hainbat ezaugarri.

Soziolinguistika Klusterrak Ondarroan egiten zuen lehen neurketa berezia izan zen 2006koa. 1989az geroztik Euskal Herriko Neurketan jaso izan da udalerriko erdiguneko erabilera, baina bereziki gazteen gunetan erabilera aztertzen den lehen aldia izan zenez, ezin izan ziren datuak aurreko urtekoekin alderatu eta dagokion interpretazioa egin, baina hurrengo urteetan herrian informazio objektibo hau jaso eta konparatu ahal izateko lehen urratsa eman zen.

Soziolinguistika Klusterrak 2006ko abenduan egindako *Ondarroako Euskararen Kale Erabileraren neurketa* txostenean zehazten den bezala, neurketa astebetean egin zen, 2006ko urriaren 23tik urriaren 29ra bitarteko egunetan egin zen, herriko hainbat gunetan zehar banatuta; ikastetxeetako sarrera- irteerak eta hainbat ibilbide: aste barruko, asteburuko eta gaueko ibilbideetan. Guztira, 21 ordu eta erdi inguru neurtu ziren.

Ahozko erabilera informala neurtu zen; hain zuzen ere, eremu informaletan (ikastetxeetan atsedenetan, irteeretan, asteburuetan, gaugiroan,...) batez ere gazteek beraien artean zenbatetan hitz egiten zuten euskaraz. Eremu intimoa izan zen, beraz, arreta-gunea; hau da, lagunartea. Gazteekin harremanetan zeuden haur eta helduen erabilera kopurua ere jaso zen. Horrela ikusi zen ea gazteek gehiago hitz egiten zuten euskaraz haien artean helduekin baino.

Erabileraren zenbateko orokorrak gain, hizkuntza hautatzeko (erabilerari dagokionez) hainbat aldagaik zuten eragina ere neurtu zen. Hala nola, sexuaren eragina, generazioen arteko erabilera, funtzioen arabera erabilera...

Kale neurketa hauek egiten Nerea Bastida aritu zen. Neurtzaile honek datu bilketa egiteko beharrezko formazioa jaso zuen Soziolinguistika Klusterraren eskutik, eta bertako irizpideei jarraiki bildu zituen behatutako errealitateari buruzko datuak.

Neurtzaile honen ikerketa-metodologia behaketa zuzena izan zen. Hau da, hiztunak neurketaren momentuan erabiltzen zuen hizkuntza jaso zuen zuzenean, ezertxo ere galdetu gabe. Horrela, neurtzaileak ibilbidean zehar topatzen zuen jendeak zerabilen hizkuntza jaso zuen, subjektibotasuna baztertuz eta emaitza fidagarriagoak lortu zirelarik.

Ezaugarri metodologikoen artean aipatu beharreko beste bat honakoa da: norbanakoaren hizkuntza baino, taldeko elkarrizketa hizkuntza neurtu zen. Kaleko erabileraz ari garela, elkarrizketak dira behatzen eta zenbatzen ditugunak, eta elkarrizketok beti dira bi lagun edo gehiagoren artekoak (ezinbestean). Ondorioz, talde batean elkarrizketa bat behatzen dugunean, une horretan hizketan ari denaren hizkuntza hartzen dugu kontuan talde osoarentzat, suposatuz une horretan hizkuntza horretan ari badira, beste batean ere horrela ariko direla, eta aldi berean suposatuz taldeko hiztun hori izan beharrean beste bat balitz hizketan ari dena, neurtu dugun hizkuntza berean egingo lukeela.

Kale erabileraren neurketa izanik, hiztun talde bakoitza une labur batean baino ez zen behatzen, eta ondorioz metodologia honekin ezin izan zen taldeko kide bakoitzaren jokaera ezagutu. Dena den, hau horrela egiteko oinarri metodologikoak sendoak dira. Kanean behatzen diren hiztun taldeek hizkuntza jokaera finkatua izaten dute eta hau oso gutxitan aldatzen da. Neurtzen direnak kasurik gehienetan lagunak, familia berekoak edota hurbilekoak izaten dira. Euskara ez dakitenen kasuan erabaki hori automatikoa da (gastelaniaz, alegia). Eta dakitenen artean, pertsona bat ezagutu eta denbora gutxira finkatu ohi da berarekin zein hizkuntza erabili. Talde batean ere antzera gertatzen da: hiztun jakin batzuen artean hizkuntza jakin bat hautatzen da eta aurrerantzean hiztun horien arteko elkarrizketak kasurik gehien-gehienetan hizkuntza horretan izango dira. Hizkuntza ohiturak aldatu ere egiten dira baina aldaketa ez da "berez" edo modu erraz batean gertatzen, eta hain zuzen aldagaiztasun

horrek, hitzun jakinen arteko hizkuntza ohiturak, oro har, egonkor izatea dakar.

Muga metodologikoak tarteko, ezin da erabateko ziurtasunez esan neurketa honetan jasotakoa Ondarroako biztanleen (*ondarrutarren*) erabilera izan zenik. Zuzenagoa da esatea Ondarroako kaleetan, batez ere gazteen gunetako erabilera jaso zela. Izan ere, ezin da ziurtatu kalean neurtu ziren hitzun guztiak herrikoak zirenik.

Hainbat aldagaik erabileran duen eragina aztertu zen neurketan: adina, sexua, eta taldearen osaera, besteak beste.

4.1.4 Metodologia:Txillardegiren eredu matematikoa eta erabilera isotropiakoa

Bat, Soziolinguistika aldizkariaren 64. zenbakitik jasotako informazioaren arabera, ondorengo lerroetan oinarri teorikoari eta kontzeptuaren esanahiari buruzko azalpenak ematen dira:

OINARRI TEORIKOAZ ETA KONTZEPTUAREN ESANAHIARI BURUZKO AZALPENAK

Kale neurketetan erabiltzen den metodologiaren oinarri teorikoa, J.L. Alvarez Enparantza "*Txillardegik*"k garaturiko "*erabilera isotropiakoa*" da, eta egile beraren Eredu Matematikoan oinarrituriko kontzeptua da. Ondorengo lerroetan kontzeptu honen oinarria, esanahia eta erabilgarritasunari buruzko laburpen bat azaltzen da.

Laburpen honetan *Txillardegiren* eredutik zenbait puntu aipatzen dira soilik, Kale Erabileraren Neurketa egiteko moduarekin eta Erabilera Isotropiakoa kontzeptuarekin lotura zuzena dutenak, beti ere erabilitako metodologiaren eta kontzeptuen ulermena errazteko xedez.

□ Abiapuntua: ukipen egoera

Hasteko, kontuan izan behar dugu gurea hizkuntza ukipen egoera bat dela (gure kasuan, gizarte berean bi hizkuntza daudelako):

Txillardegik garatutako eredu matematikotik alderdi bat besterik ez da hartu. Hizkuntzen arteko ukipen egoerari aplikatuko diogu. Egoera horretan, esan dugunez, B hizkuntzako hitzun elebakar multzo esanguratsurik ez dago, hitzun guztiak A hizkuntzaren jabe diren bitartean, haien arteko batzuk B hizkuntza jakin eta erabiltzeko moduan daude.

(gure kasuan B euskara litzateke eta A gaztelania edo frantsesa).

Elebidunen aldetik B hizkuntzaren erabilera gertaera estokastiko gisa definitu da. Azken buru, ez da ezagutzen aldez aurretik zein den elebidunen portaera linguistikoa. Biztanle bakoitzak eta guztien artean momentu jakinetan hizkuntza harremanen bat gerta daitekeela suposatzen bada, orduan B hizkuntzaren erabilera maila elebidunen proportzioaren funtzio zuzena izaten da.

Hortaz, kontuan izan behar da, batetik ukipen egoeran gaudela eta gainera, gure kasuan, euskara dakiten guztiek dakitela gaztelania edo frantsesa. Ondorioz, euskara egoera jakin batzuetan erabili ahal izango da, eta egoera horien zenbatekoa B hizkuntzaren hiztunen (alegia, euskaldunen) proportzioaren arabera izango da. Gogoan izan erabiltzeko aukeraz ari garela, aukera potentzialaz. Beste gauza bat da zer hizkuntza jokaera duten elebidun horiek, baina aukerak zenbat izango diren kalkula daiteke.

□ Probabilitatea

Zein da B hizkuntzako 2 hiztunen arteko elkarriketa bat gertatzeko probabilitatea?

$$PR_{BB} = e_B \cdot e_B = e_B^2$$

Non, e_B euskal hiztunen proportzioa den (0tik 1era)

Demagun, adibidez, %55a euskalduna den herri batean gaudela. Bertako bi biztanle (edozein) kalean elkartzen badira, zenbatekoa da biak euskaldunak izateko probabilitatea?

$$PR_2 = 0,55 \cdot 0,55 = 0,302 \text{ edota } \mathbf{\% 30,2}$$

Baina, noski, kalean ematen diren elkarriketak ez dira beti bi pertsonen artekoak izaten: bikoteen, hirukoteen, laukoteen eta hiztun talde handiagoen arteko elkarriketak ere eman daitezke. Eta zenbatekoa da hirukote bat kalean elkartuta elkarriketa euskaraz izateko probabilitatea, alegia; zenbatekoa da hiru hiztun horiek euskaldunak izateko probabilitatea? (lehengo adibide bera erabiliz);

$$PR_3 = 0,55 \cdot 0,55 \cdot 0,55 = 0,166 \quad \text{alegia } \mathbf{\%16,6}$$

Eta hirukotea izan beharrean, laukotea bada, probabilitatea oraindik eta gehiago gutxitzen da:

$$PR_4 = 0,55 \cdot 0,55 \cdot 0,55 \cdot 0,55 = 0,091 ; \mathbf{\%9,1}$$

Eta probabilitatea gero eta txikiagoa da taldea handitu ahala. Txillardegiren hitzetan: "*talde handietan ($n = 4, 5, 6, \dots$), B hizkuntzaren*

erabilerak erritmo esponentzial batean egiten du ihes". Eta errealitatean zenbateko taldetan ematen dira elkarrizketak? Orain arte Euskal Herri mailan egindako Kale Erabilera Neurketen informazioa erabil dezagun horretarako:

□ Bikote, hirukote eta laukoteen proportzioa

EKBk 1993 eta 1997ko neurraldietan solaskide kopurua behatu zuen. Hau da, behatutako elkar hizketak bikoteetan, hirukoteetan, laukoteetan, boskoteetan edo talde handiagoetan gertatzen zirenen arabera, bikote, hirukote, laukote, ... kopuruak zenbatu eta haien artean zeintzuk egiten zuten euskaraz zehaztu ere.

Bi neurketaldi horietan solaskide kopuruaz, guk w_i pisu estatistikoak deitutakoaz, jasotako datuetatik abiatuz, laukoteetara mugatu dugu hiztun taldeen tamainaren eragina eta w_2 , w_3 eta w_4 pisu estatistikoak balio finkotzat jo. Horrela, batenaz beste bikote, hirukote eta laukoteen pisuak ondorengoak finkatu ditugu:

$$w_2 = 0.5488$$

$$w_3 = 0.2862$$

$$w_4 = 0.1650$$

Beraz, kalean behatutakotik ondorioztatzen da lau hiztunetik gorako taldeen arteko elkarrizketak oso gutxitan gertatzen direla (talde handiagoetan normalki ez da elkarrizketa bakarra egoten, gehiago baizik). Bestalde, orain badakigu bikote, hirukote eta laukoteen pisua zenbatekoa den eta proportzio hori gure kalkuluetan finkotzat hartzen da.

Horrela ba, probabilitate mailan, euskarazko elkarrizketak gerta daitezen dagoen aukera (berriz ere e_B herriko euskaldunen proportzioa izanik) hau izango da:

$$PR_B = w_2 e_x^2 + w_3 e_x^3 + w_4 e_x^4$$

Baina, noski, gogoan izan hasieran aipatu dena: ukipen egoeran gaude eta gainera, gure kasuan, euskara dakiten guztiek dakite gaztelania edo frantsesa. Ondorioz, Txillardegik dioenez: "*B -ren erabilera eman dadin erabat beharrezkoa den baldintza bakarra da elebidunak, horretara beharturik ez egon arren, leialtasunez, beraien artean B erabiltzen jarraitzea (lasai-lasai erabil baitezakete A beraien artean ere)*".

Orain arteko urratsetan, elebidunen proportzio jakin bat izanik, hiztunen artean euskarazko elkarrizketak eman daitezen zenbat aukera dauden kalkulatu da. Baina, jakina, mila arrazoi ezberdin tarteko, gerta daiteke euskaldunen arteko elkarrizketak erdaraz izatea. Beharrezko ez izanik ere euskaraz egite hori Txillardegik hizkuntza leialtasun bezala izendatu du (m_B).

Erabilera maila hiru osagaien funtzio zuzena izango litzateke, elebidunen proportzioa (e_x), mintzakide taldearen tamaina edo solaskide kopurua erabilera askean (w_i) eta hizkuntza gutxiagotuarekiko leialtasuna (m_B). Horrela, erabilera maila kalkulatzeko formula ondorengoa izango litzateke.

$$P_B = m_B (w_2 e_x^2 + w_3 e_x^3 + w_4 e_x^4)$$

$\begin{array}{c} \text{elebidunen proportzioa} \\ \text{laukotearen pisua} \\ \text{hirukotearen pisua} \\ \text{bikotearen pisua} \\ \text{hizkuntzarekiko leialtasuna} \end{array}$

Hizkuntza gutxiagotuaren erabilera maila isotropiakoa

Formula honetatik abiatuta, erabilera isotropiakoa (edo espero daitekeena) kalkulatzeko $m=1$ dela suposatuko da, alegia, euskara dakitenen arteko elkarriketak ematen direnean beti euskaraz direla eta egoera isotropiakoa dela. Formula, hortaz:

$$P_B = w_2 e_x^2 + w_3 e_x^3 + w_4 e_x^4$$

□ Azken oharra: ISOTROPIA / ANISOTROPIA eta KONPAKTAZIOA:

Probabilitateak kalkulatzeko garaian, B hizkuntzaren ageriko erabilera zorizko gertaeratzat jo da. Nonahi eta noiznahi ager daitekeen jazoera dela esan nahi da. Gure ereduaren eredu estokastikoa dela esaterakoan, B hizkuntzaren erabilerari buruzko aurreiritzi guztiak baztertzen direla esan nahi da, zuzenak zein okerrak, ez da aurreiritzi bakar bat onartzen. Esaten da, B hizkuntzaren erabilera, elebidunak tarteko direlarik, gertaera probablea dela, besterik ez. Orokorrean, kontrako frogatu ezean, gizartea linguistikoki isotropiakoa da; B hizkuntzaren erabilera, printzipioz, elebidunen proportzioaren funtzio zuzena da.

Orain arteko urratsetan gizarteko egoera isotropiakotzat hartu da, hortaz: alegia, suposatu da edozein hiztunek beste edozeinekin hitz egiteko probabilitatea duela.

Dena den, J.L. Alvarez Enparantzak eta X. Isasik egindako azterketetan ikusi da herri askotan hori ez dela horrela. Neurketak eginda, kasu batzuetan m -ren balioa 1 baino handiagoa lortzen zen neurketaren emaitza errealak gorago azaldu den formularen sartuta, eta hori estatistikoki onartezina da (leialtasuna %100ekoa baino handiagoa izatea

suposatuko luke). Txillardegiren hitzetan "Neurketen emaitzak (mota guztietako herrietan behin eta berriz errepikatuak) soilik uler zitezkeen A hizkuntzako elebazarren kopuru handi bat hitzun elebidunekin harremanetan ez zegoela suposatuz. A hizkuntzako elebazarren isolamendu linguistiko honek B hizkuntzaren erabilera hobetzen du"

"Horrek behartu gintuen isotropia linguistikoaren hipotesia alde batera uztera. Euskal Herrian ez da isotropia hori ematen"

Horrek esan nahi du nolabait gure herrietan bi sare edo komunitate ezberdin daudela (euskarazkoa eta erdarazkoa) eta bateko zein besteko kideen artean harremanak izateko aukera ez dela estatistikoki askea, ausazkoa, hasieran suposatu den bezala. Beste modu batean esanda, hitzun bakoitzak bere sareko kideekin maizago dituela harremanak beste sarekoekin baino.

Errealitate honetaz jabetzeak eraman zituen J.L. Alvarez Enparantza eta X. Isasi eredu matematikoaren garapenean urrats berriak ematera. Besteak beste, "gizarteratze tasa" (g) kontzeptua erabili dute, aipatu bi sareen arteko integrazio maila deskribatzeko.

Gorago esan bezala, neurketen emaitzetako bat izan da ohartzea badagoela A hizkuntzako elebazarren proportzio bat ez duena elebidunekin harremanik izaten. $g=0$ izango da inolako harremanik ez dagoenean (alegia, erdaldunen eta euskaldunen sareak bata besteagandik erabat berezita bizi direnean, harremanik gabe) eta $g=1$ izango da herriko A elebazar guztiak elebidunen sarean erabat integratuta dauden kasuetan (kasu honetan sare bakarrean leudeke guztiak, elebakarrak eta elebidunak).

Kasu errealik gehienak mutur batean zein bestean baino, bien artean kokatzen dira. Horrela, hemen aipatu direnez gain beste formula batzuk ere erabilia, kaleko erabilera neurtuta Txillardegiren eredua iristen da komunitate baten leialtasuna (m) eta gizarteratze tasa (g) zehaztera. Azken honek, nolabait Txepetxek definituriko euskaldungoaren konpaktazioa kontzeptuaren antzeko zerbait adierazten du.


Ikusi dugu, hortaz, nola kalkula daitekeen erabilera isotropiakoa herri batean euskaldunen proportzioa zenbatekoa den jakinda. Gerora ikusi dute nola praktikan Euskal Herrian ez den egoera isotropiakoa ematen, eta gizarteratze tasa ere kontuan hartu behar dela.

Dena den, erabilera isotropiakoa oso erabilgarria da, herrian neurtu dugun erabilera errealaren emaitzak altuak edo baxuak diren baloratu ahal izateko erreferentzia teoriko bat ematen duelako.*

4.2 Erabileraren bilakaeraren emaitzak (1989-2006) Euskal Herrian, Bizkaian eta Ondarroan.

4.2.1 Euskararen erabileraren datu orokorrak

□ Euskal Herria




17. grafikoa: Euskararen erabilera orokorra Euskal Herrian
Iturria: Bat, Soziolinguistika aldizkaria

Egindako azken euskararen kale-erabileraren emaitza orokorra, 2006koa, %14,2koa izan da eta beraz, 0,7ko hobekuntza egon da 2001etik 2006ra. Erabileraren bilakaera kontuan izanda, 1989ko %10,8tik %14,2ra heldu da 2006an.


Esan daiteke, orokorrean, Euskal Herrian gero eta euskara gehiago erabiltzen dela leku publikoetan. 2001eko neurketaren emaitzak bilakaera positiboa izan duela erakutsi du. 2006koak, hobetu egin du bilakaera positibo hori.

Goranzko joera izan arren, hazkundera ez da azpimarratzeko modukoa izan. 1989tik 2006ra bitartean euskararen erabilera %11tik %14ra soilik igo da.

Lurraldekako emaitza orokorrak



18. grafikoa: 2006ko erabilera orokorra lurraldeka
Iturria: Bat, Soziolinguistika aldizkaria



19. grafikoa: Erabilera orokorraren bilakaera lurraldeka
Iturria: Bat, Soziolinguistika aldizkaria


Erabileraren hobekuntza nabarmena Gipuzkoara mugatu da, Bizkaiak eta Arabak gutxi aurreratu dute, Nafarroan ez da inolako mugimendurik eman eta Iparraldean erabilera jaitsi egin da.

Bizkaiko datua zehatzago aztertuta, aurreko neurketetan euskararen erabileraren bilakaera goranzkoa izan dela ikus daiteke baina azken neurketan erabilerak behera egin du, %11tik %10,4ra jaitsiz.

Nafarroako euskararen erabileraren kasuan berriz, euskararen erabilera geldo dagoela nabari daiteke, ez aurrera ez atzera. Beraz, ezin daiteke argi esan zein den Nafarroako erabileraren joera.

Iparraldean berriz, galera prozesua areagotu egin da 2006ko neurketan. Jaitsiera garrantzitsu honen ondorioz, Iparraldea euskara gutxien entzuten den lurralde-eremua dela esan daiteke, Arabaren atzetik. Azken neurketaren arabera, euskararen erabilera Ipar Euskal Herrian %4,6 izan da.

□ Bizkaia




20. grafikoa: Bizkaiko erabilera orokorraren bilakaera
Iturria: Bat, Soziolinguistika aldizkaria

Bizkaiko euskararen erabilera bilakaera argia zein den ezin dezakegu esan. 2001ean gutxi gora-behera hamar bizkaitarretatik batek hitz egiten zuen euskaraz kalean (%11) eta 2006ko azken neurketan ere antzerako egoera zegoen, hamar bizkaitarretatik batek (%10,4). Euskal Herriko herrialdeen artean, Bizkaia tarteko egoeran dago euskararen kale erabilerari dagokionez.

Bizkaiko euskararen kale erabilera pixka bat jaitsi egin da 2001eko neurketatik 2006ko neurketara. Hain zuzen ere %11tik %10,4ra jaitsi da. 1989tik euskararen kale erabilera gora joan da etenaldi edo geldialdirik gabe, baina badirudi 2006ko neurketan joera orokor hau aldatu egin dela. Beraz, ikusi egin beharko da euskararen kale erabileraren jaitsiera txiki hau momentuko zerbait den edo beheranzko joera orokor bat islatzen duen.

Euskal Herrian, bere osotasunean hartuta, euskararen erabilerak gora egin du neurketa bakoitzetik bestera baina Bizkaian, Iparraldean bezala, erabilerak beherako bidea hartu du azken neurketaldian. Hala ere, Bizkaiko beheranzko joera hau ezingo da baieztatu hurrengo neurketaldia egin arte, izan ere jaitsiera hain txikia izanik, beste arrazoi batzuk izan daitezkeelako jaitsieraren zergatia, adibidez, errore margena.

□ Ondarroa



21. grafikoa: Ondarroako erabilera orokorraren bilakaera
Iturria: Soziolinguistika Klusterraren txostena


Ondarroako **erdiguneko kaleetan** euskararen erabilera orokorraren bilakaerak hainbat gora-behera izan ditu urteetan zehar. Lehenengo urteetan, 1989tik-1993ra, nabarmen egin zuen gora, 1993tik 1997ra pixka bat jaitsi, 1997tik 2001era berriz gora eta azken neurketan, 2001etik 2006ra pixka bat jaitsi arren, mantendu egin dela esan dezakegu grafikoan agertzen diren datuak aztertzen baldin baditugu. Euskal Herriko eta Bizkaiko datuekin konparatzen baditugu, Ondarroan kaleko elkarriketa gehienak euskaraz egiten direla ondorioztatu dezakegu.

Grafikoan agertu ez arren, 2006ko neurketan jasotakoaren arabera, Ondarroan **gazteen gunetan** euskararen kale erabilera % 85,7 izan da; alegia, gunehorietan neurtu diren 100 elkarriketetatik 86 entzun dira euskaraz, eta gainerakoak erdaraz (gaztelaniaz gain, beste hizkuntzak ere kontuan hartu dira azterketa honetan).

Ondarroan egindako azken neurketan guztira 6.060 hiztuni dagozkien datuak jaso dira. Neurtutako haur eta gazteak 3.955 izan dira. Baina herrian adin horretako (2-29 urte bitarteko) biztanleak momentu horretan 2.287 zirela kontutan izanda, haur eta gazte batzuk behin baino gehiagotan neurtu dira. Ondorioz, behatutako hiztun kopuru nahikoa handia izan da eta lortutako erabilera datuek oinarri sendoa dute laginaren tamainari dagokionean.

4.2.2 Euskararen erabilerraren datuak adinaren arabera

□ Euskal Herria




22. grafikoa: Euskal Herriko erabilera adinaren arabera
Iturria: Bat, Soziolinguistika aldizkaria

Grafikoan ikus daitekeen bezala, euskararen erabilera igo egiten da adinean jaitsi ahala.

Haur, gazte eta helduen erabilerraren bilakaera orokorra goranzkoa izan da, alderik handiena haurren (%15etik %20ra) eta gazteen (%8,5etik %13,8ra) multzoan dagoelarik. Adinekoen erabilera aldiz, nabarmen jaitsi da, lehen neurketan erabilera %13,7 zen eta azken neurketan %10,6. Adinekoen beherantzko joera etengabea izan da.

□ Bizkaia



23. grafikoa: Bizkaiko erabilera adinaren arabera
Iturria: Bat, Soziolinguistika aldizkaria

Bizkaiko adin taldeen joera orokorra aztertzen badugu, hau da 1989tik 2006ra, guztiek goranzko joera izan dutela ikusten dugu, batez ere 1989tik 2001era. Azken neurketan berriz, euskararen kale erabilerak behera egiten duela adin talde guztietan ohartzen gara. Haur, gazte, heldu zein adinekoek 2001.urtean baino gutxiago hitz egiten zuten euskaraz kalean 2006an.



Bat, Soziolinguistika aldizkariaren 64. zenbakitik jasotako informazioaren arabera, 2001eko Soziolinguistika inkestak erakusten duen bezala, Bizkaiko euskaldunen kopurua gora doa, batez ere gazteen artean. Aldi berean, euskararen transmisioa ia erabatekoa da guraso biak euskaldunak direnean eta euskara gero eta gehiago transmititzen da bietako batek bakarrik dakienean, nahiz eta kasu

horietan euskaraz eta gaztelania, biak batera, transmititzen diren.

Gainera, urtez urte handitzen doa euskarazko irakaskuntza ereduetan ikasten duten umeen eta gazteen kopurua. Hala eta guztiz ere, kaleko erabilerak ez du gora egiten.

Iritzi desberdinen arabera, diglosian bizitzeak espainolez errazago hitz egitea dakar. Diglosiak haur eta gazteengan duten eraginarekin batera, belaunaldi berriek aldatu egin dute euskararekiko jarrera. Hau da, euskararen irudi soziala aldatu egin da batez ere gazteen artean.

Euskara modu naturalean hartu duten belaunaldi berriek, frankismo ostean hasitakoek baino gutxiago baloratzen dute euskara. Eta horrek eragin zuzena du erabileran.

Bizkaiko helduen artean ere erabilerak ez du aurrera egin 2001etik. Diglosiaren eraginarekin batera, kontutan hartu behar da.

Kale erabileraren jaitsierarik nabarmena izan duen adin taldea, adinekoen taldea izan da. Bizkaiko adinekoen %11k hitz egiten zuen kalean euskaraz 2001ean eta %8,7ak 2006an. Bizkaian ez ezik, joera hau Euskal Herriko herrialde guztietan eman da.


Iritzi ezberdinen arabera, biztanleria autoktonoa hiltzen joan da eta beraz, euskara eguneroko hizkuntza gisa erabiltzen zutenen talde garrantzitsu bat desagertzen ari da. Eta honekin batera, pentsatzekoa da hurrengo neurketan ere erabilera gehiago jaitsiko dela adin talde honetan.

□ Ondarroa

Ondoren agertzen diren Ondarroako euskararen erabileraren adinaren arabera datuak bi iturritatik jaso dira:

- 1993, 1997 eta 2001eko datuak Euskararen Datu Basetik hartu dira. Datu hauek orientatiboak izango dira, Markina- Ondarroako datuak eskaintzen baititu datu base honek.
- 2006ko datuak, Soziolinguistika Klusterrak Ondarroako Udalari egindako txostenetik atera dira.

2006ko neurketan 2.134 haur, 1.821 gazte, 1632 heldu eta 473 adineko neurtu dira.




24. grafikoa: Ondarroako erabilera adinaren arabera
Iturriak: Euskararen Datu Basea eta Soziolinguistika Klusterraren txostena

Ondarroako adin taldekako euskararen erabileraren bilakaera aztertuz gero, Euskal Herriko eta Bizkaiko kasuetan ez bezala, Ondarroan euskararen erabileraren bilakaera goranzkoa dela ikus dezakegu haur, gazte eta helduen taldeetan. Adinekoen taldean berriz, bilakaera hori beheranzkoa da.

2006ko neurketan euskara gehien erabiltzen zutenak haurrak (% 93,3) eta gazteak (%89,8) izan ziren; bi adin talde horiek dira herriko batez bestekoaren gainetik ageri direnak. Helduen eta adinekoen erabilera maila antzekoa izan zen: % 74,8 eta % 73,4, hurrenez hurren.

4.2.3 Euskararen erabileraren datuak gaitasun mailaren arabera



25. grafikoa: Euskal Herriko udalerrien gaitasun mailaren arabeko datuak
Iturriak: Bat, Soziolinguistika Aldizkaria

Erabilera datuak, udalerrietako biztanleen hizkuntza gaitasunaren arabera ere aztertu dira.

Neurketa guztietako bilakaerak aztertuz gero, 1993tik 2006ra multzo guztietan euskararen erabilerak gora egiten duela argi ikus daiteke. Tarteko tipologietan lortu da hobekuntzarik nabarmenena. Gaitasun maila %25-50ekoa den eremuan %13tik %20ra eta %50-75ekoan %36tik %41era.

Baina azken bi neurketetako datuak aztertuta, zonalderik euskaldunenetan (%75-100) lortzen da hobekuntza erritmo biziena. Zonalderik erdaldunenetan ere erritmo biziagoa lortzen da baina oso abiapuntu baxutik abiatuta.

4.2.4 Euskararen erabileraren datuak sexuaren arabera

□ Euskal Herria


2006ko neurketan generoaren araberako datu bakarrak Hego Euskal Herriko hiriburuetakoak izan dira.

Lau hiriburuetan eta adin tarte guztietan, emakumeek gizonezkoek baino euskara gehiago erabiltzen dutela ikusten da. Salbuespen bakarra Donostiako (hiribururik euskaldunena) adin-tarterik zaharrenean aurkitu da. Emakumeen aldeko aldeak nabarmenak dira haurren eta gazteen artean. Heldu eta zaharren artean berriz, aldeak oso txikiak dira.




2006	Haurrak		Gazteak		Helduak		Zaharrek	
Hiriburua	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.
Gasteiz	6,1	5,4	7,1	5,2	3,9	3,5	0,7	0,6
Bilbo	8,7	6,4	4,2	2,7	4,6	3,8	1,7	1,4
Donostia	36,1	31,9	21,8	13,3	15,3	14,9	6,9	8,5
Iruñea	4,5	1,8	2,7	2,0	4,1	1,7	2,5	1,8

□ Ondarroa



26. grafikoa: Sexuaren eragina erabileran, Ondarroa
Iturria: Soziolinguistika Klusterraren txostena

Hego Euskal Herriko hiriburuetan eta adin tarte guztietan, emakumeek euskara gehiago erabiltzen dutela ikusten da 2006ko neurketan. Ondarroan egindako neurketan berriz, sexuak ez duela euskararen erabileran eraginik ikusten da, izan ere 2006ko kale neurketan jasotako erabilera bai gizonezkoetan baita emakumezkoetan ere % 85,7 izan da.



27. grafikoa: Sexuaren eta adinaren arabera erabilera emaitzak, Ondarroa
Iturria: Soziolinguistika Klusterraren txostena

Adin taldeak banaka aztertuz, sexuaren aldagaia esanguratsua dela ikusten da. Belaunaldi gazteetan emakumezkoek gehiago hitz egiten dute gizonezkoek baino eta adinekoetan alderantziz gertatzen da, erabilera txikiagoa da emakumezkoen artean. Helduen erabileran ez da sexuaren arabera alderik egon.

4.2.5 Euskararen erabileraren datuak haurren presentziaren arabera

Haurren presentziaren aldagaia ere biziki interesgarria da, kasu askotan euskararen erabileran eragin nabarmena baitu. Egin diren hainbat neurketatan (beste herrietan, Euskal Herrian...) haurrak tartean egotean euskararen erabilera nabarmen gogortzen dela baieztatu ahal izan dugu.

□ Euskal Herria

Irizpide hau jarraituta ere, ditugun datu bakarrak 2006koak eta hiriburuetakoak bakarrik dira.




Joera orokorrari erreparatuz, elkarriketetan haurrak tarteko direnean, euskararen erabilera askoz handiagoa da, haurrik ez dagoenean baino, Iruñean izan ezik.

Nagusiak hurrekin ari direnean ere, askoz euskara gehiago egiten dute, nagusien artean ari direnean baino. Eta Donostia ez beste hiriburuetako

haurren arteko elkarrizketetan euskararen erabilera oso baxua da. Haurrik gabeko elkarrizketetan euskararen erabilera gehiago igo da, haurrak tarteko direnetan baino.


2006	Haurrak		Haurrak eta nagusiak	Haurren artean	Nagusien artean
Hiriburua	Bai	Ez			
Gasteiz	5,9	2,6	8,9	0,8	3,0
Bilbo	7,3	3,8	9,9	4,3	4,4
Donostia	31,6	11,8	38,0	32,2	20,0
Iruñea	4,4	5,3	6,9	0,8	2,1



28. grafikoa: Haurren presentziaren arabera euskararen erabilera emaitzak, Ondarroa
Iturria: Soziolinguistika Klusterraren txostena

Haurrik tartean ez denean erabilera %45 da eta haurrak presente daudenean, berriz, %47,4. Ez dago ia alderik, beraz. Hortaz, Euskal Herriko udalerri gehienetan ez bezala, Ondarroako kaleetan elkarrizketa batean haurrak tartean egotearen aldagaiak ez du eraginik elkarrizketa euskaraz edo erdaraz izateko.

Dena den, haurren presentziak eraginik duen ala ez jakiteaz gain, interesgarria da erabilera edo komunikazio hori zehazki zein modutan gertatzen den jakitea. Alegia, haurrak elkarrizketan zuzenean parte hartzen duten (mintzakide diren) edo ez diren mintzakide; eta horrek erabileran eraginik ba ote duen. Ondorengo grafikoa azaltzen dira irizpide honi dagozkion datuak.



29. Haurren presentziaren eragina euskararen erabileran, Ondarroa
Iturria: Soziolinguistika Klusterraren txostena

Grafikoan azaldu bezala, erabilerarik altuena haurrak mintzakide direnean jasotzen da: alegia, batez ere haurren artean jasotako elkarrizketetan (%96,2) edo hurrek elkarrizketan zuzenean parte hartzerakoan (%88,6). Diagraman ikus daitekeen moduan, haurrak ez daudenean edo haurrak presente egonda ere, elkarrizketan parte hartzen ez dutenean, nagusien arteko elkarrizketetan euskararen erabilera jaitsi egiten da; hurrenez hurren erabilera %82,2 eta %74,9 izan da. Datu horietan ikus daiteke, haurren presentzia soilak ez duela eraginik helduen erabileran.

4.2.6 Euskararen erabileraren datuen eta ezagutza datuen arteko konparaketa

□ Euskal Herria

Orokorrean, euskararen hizkuntza gaitasunak Euskal Herrian goranzko joera daukala esan behar da, nahiz eta oraindik ere erdaldun elebazarren kopurua askoz handiagoa izan. Hamabost urteko joera aztertuz gero, elebidun eta elebidun hartzaileen multzoek goranzko joera nabarmena izan dutela ikus daiteke, %22,3tik %25,7ra eta %7,71etik %15,37ra hurrenez hurren. Erdal elebazarren multzoak berriz beheranzko joera izan du, %70etik %58,92ra jaitsiz.

Euskararen erabilera orokorrari dagokionez, esan daiteke gero eta euskara gehiago erabiltzen dela leku publikoetan. Baina goranzko joera izan arren, hazkundea ez da azpimarratzeko modukoa izan. 1989tik 2006ra bitartean euskararen erabilera %11tik %14ra soilik igo da.

Beraz, hizkuntza gaitasun orokorrak nabarmen gora egin arren, joera hori ez da erabileran nabari.

Adinari dagokionez, esan dezakegu 1991tik 2001era Euskal Herriko haur eta gazteen euskaldun kopuruaren joera goranzkoa den heinean, erdaldunena beheranzkoa izan dela. Bi adin-talde hauetan, biztanleen kopuru orokorrak ere behera egiten duela argi ikus daiteke grafikoetan.

Heldu eta adinekoen kopuru orokorrak berriz, nabarmen egiten du gora denbora tarte honetan. Heldu eta adinekoen ezagutzari dagokionez, helduen kasuan euskaldun eta ia-euskaldunen multzoen joera goranzkoa izan da eta erdaldunen taldearen joera berriz, beheranzko izan da. Bestalde adinekoen kasuan, euskaldunen taldeak nabarmen egin du behera eta erdaldunen taldeak berriz gora, nahiz eta kopuru txikian izan.

Euskararen erabilerari dagokionez, erabilera igo egiten da adinean jaitsi ahala.

Haur, gazte eta helduen erabileraren bilakaera orokorra goranzkoa izan da, alderik handiena haurren (%15etik %20ra) eta gazteen (%8,5etik %13,8ra) multzoan dagoelarik. Adinekoen erabilera aldiz, nabarmen jaitsi da, lehen neurketan erabilera %13,7 zen eta azken neurketan %10,6. Adinekoen beheranzko joera etengabea izan da.

Beraz, ezagutzan gora egin duten adin taldeetan, hau da, haur, gazte eta helduen taldeetan euskararen erabilerak ere goranzko joera duela ondorioztatu dezakegu. Adinekoen taldean berriz, alderantzizkoa gertatu da.

□ Bizkaia

Orokorrean, Euskal Herrian bezala Bizkaian ere, euskaldunen joera goranzkoa dela esan dezakegu erdaldunena beheranzkoa den bitartean. Hamabost urteko joera aztertuz gero, euskaldunen multzoak goranzko joera nabarmena izan duela ikus daiteke, %30,63tik %47,37ra. Erdaldunen elebakarren multzoak berriz beheranzko joera azpimarragarria izan du, %51,80tik %34,98ra jaitsiz.

Bizkaiko euskararen kale erabilerari dagokionez, pixka bat jaitsi egin da 2001eko neurketatik 2006ko neurketara. Hain zuzen ere %11tik %10,4ra jaitsi da. 1989tik euskararen kale erabilera gora joan da etenaldi edo geldialdirik gabe, baina badirudi 2006ko neurketan joera orokor hau aldatu egiten dela eta erabilera jaitsi egiten dela.

Ondorioz, Bizkaiko biztanleen euskararen ezagutza orokorrak gora egin badu ere, euskararen erabilerak behera egin duela ondorioztatu dezakegu. Hala ere, Bizkaiko beheranzko joera hau ezingo da baieztatu hurrengo neurketaldia egin arte, izan ere jaitsiera hain txikia izanik, beste arrazoi batzuk izan daitezkeelako jaitsieraren zergatia, adibidez, errore margena.

Bizkaiko biztanleen adinaren arabera ezagutzari erreparatuz, Bizkaiko haur, gazte eta helduen multzoetan euskaldun eta ia-euskaldunen kopuruen bilakaera goranzkoa da eta erdaldunena berriz beheranzkoa. Adinekoen taldean bestalde, erdaldunen kopurua mantendu egin da urteetan zehar.

Bizkaiko haur eta gazte gehienak euskaldun edo ia-euskaldun diren bezala, helduen %48 eta adinekoen %72, erdaldunen multzoan kokatzen da oraindik ere.

Euskararen erabilerari dagokionez, 1989tik 2006ra guztiek goranzko joera izan dutela ikusten da, batez ere 1989tik 2001era. Azken neurketan berriz, euskararen kale erabilerak behera egiten duela adin talde guztietan ohartzen gara. Haur, gazte, heldu zein adinekoek 2001.urtean baino gutxiago hitz egiten zuten euskaraz kalean 2006an.

Beraz, Bizkaiko haur, gazte eta helduen ezagutzaren bilakaera goranzkoa bada ere, azken neurketaldian adin talde hauetan euskararen erabilera jaitsi egin dela esan dezakegu. Adinekoen kasuan, ezagutza mantendu egin da eta erabilera, beste taldeetan bezala, jaitsi.

□ Ondarroa

Orokorrean, Euskal Herrian eta Bizkaian bezala, Ondarroan ere euskaldunen joera goranzkoa dela esan dezakegu erdaldunena beheranzkoa den bitartean. Hamabost urteko joera aztertuz gero, euskaldunen multzoak goranzko joera nabarmena izan duela ikus daiteke, %78,45etik %81,06ra. Erdaldun elebakarren multzoak berriz beheranzko joera izan du, %10,11tik %7,60ra jaitsiz. Hala ere, Euskal Herrian eta Bizkaian ez bezala, Ondarroako biztanle gehienak, %92 inguru, euskaldun eta ia-euskaldunen multzoetan kokatzen dira.

Ondarroako erdiguneko kaleetako erabilera orokorrari dagokionez, erabileraren bilakaerak hainbat gora-behera izan ditu urteetan zehar. Lehenengo urteetan, 1989tik 1993ra nabarmen egin zuen gora, ondoren 1993tik 1997ra, pixka bat jaitsi, 1997tik 2001era berriz gora eta azken neurketan, 2001etik 2006ra pixka bat jaitsi arren, mantendu egin zela esan dezakegu. Ondarroan kaleko elkarrizketa gehienak, %81 gutxi gora-behera, euskaraz egiten direla ondorioztatu dezakegu.

Ondorioz, Ondarroako biztanle gehienak euskaldun edo ia-euskaldunen multzoetan aurkitzen direnez, Ondarroako kaleetako elkarrizketa gehienak ere euskaraz egiten direla esango dugu.

Ondarroako biztanleen adinaren arabera ezagutzari erreparatuz, Ondarroako eta Markinako adin talde guztiak (haurrak, gazteak, helduak eta adinekoak) euskaldunen eta ia euskaldunen multzoan kokatzen dira, guztietan %90etik gorako kopuruan baina haurren eta gazteen kasuan, euskaldunak eta ia-euskaldunak direnak ia %100 izatera heltzen dira. Euskararen erabilerari dagokionez, Ondarroako adin taldekako euskararen erabileraren bilakaera, Euskal Herriko eta Bizkaiko kasuetan ez bezala, goranzkoa dela esan dezakegu haur, gazte eta helduen taldeetan. Adinekoen taldean berriz, bilakaera hori beheranzkoa da. 2006ko neurketan euskara gehien erabili dutenak haurrak (% 93,3) eta gazteak (%89,8) izan dira. Helduen eta adinekoen erabilera maila antzekoa izan da: % 74,8 eta % 73,4, hurrenez hurren.

Laburbilduz, adinaren arabera ere, haur, gazte, heldu eta adineko guztiak euskaldun eta ia-euskaldunen kategorian kokatzen dira. Hala ere bi kategoria hauetan portzentaje onenekin kokatzen diren multzoak haur eta gazteenak dira eta hori nabari da erabileran ere, haur eta gazteak baitira euskara gehien erabiltzen dutenak, heldu eta adinekoen aurretik.

5. EMAITZEN ONDORIO NAGUSIAK

EUSKAL HERRIKO EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILERA	
- EZAGUTZA -	
✓	Euskal Herrian erdaldun elebakarrak dira nagusi, %60tik gora dira. Hala ere erdaldun elebakarren bilakaerak azken hamabost urteetan zehar beheranzko joera izan du.
✓	Euskal Herriko euskal elebidun, elebidun orekatu eta elebidun hartzaileen joera goranzkoa izan da, 1991an %22,29 zen eta 2006an %25,7.
✓	Euskal Herriko haurren ezagutzari dagokionez, haur euskaldunen bilakaera goranzkoa izan da nahiz eta kopuru txikian izan. Ia-euskaldun eta erdaldunen multzoek berriz, beheranzko joera azpimarragarria izan dute.
✓	Euskal Herriko gazteen ezagutzari dagokionez, gazte euskaldunak gero eta gehiago dira. 1991an gazte gehienak erdaldunen multzoan kokatzen baziren ere, 2001ean gazte gehienak euskaldunen multzoan kokatzen ziren. Gazte erdaldunen bilakaeraren joerak berriz nabarmen egiten du behera, hamar urtean %47tik %31ra jaisten delarik.
✓	Euskal Herriko helduen ezagutzari dagokionez, biztanle gehienak erdaldunen multzoan kokatzen dira, gutxi gora-behera %60, baina hauen bilakaera beheranzkoa izan da. Gorakadarik handiena izan duen multzoa, ia-euskaldunena izan da, beraz, euskara ulertzen duten biztanleak gero eta gehiago dira. Nahiz eta kopuru txikiagoan izan, euskaldunen multzoak ere gora egin du.
✓	Euskal Herriko adinekoen ezagutzari dagokionez, adinekoen gehiengo erdaldun elebakarren multzoan kokatzen da. Gainera, adineko erdaldunen bilakaera, nahiz eta kopuru txikian izan, goranzkoa izan da. Euskaldunen taldearen bilakaera beheranzkoa izan da, 1991an %27koa zelarik eta 2001ean ia %24koa. Bilakaera nabarmena izan duen kategoria, ia euskaldunena izan da.
- ERABILERA -	
✓	Euskara gero eta gehiago erabiltzen da Euskal Herrian. 2006ko neurketetan elkarriketen %14,2 euskaraz izan dira.
✓	Euskararen erabilera oraindik ere minoritarioa da euskal gizartearen eremu gehienetan.
✓	Gipuzkoak euskararen erabileraren etengabeko hobekuntzarekin jarraitu du, %33ra helduz.
✓	Arabak lehen aldiz hobetu du modu nabarmenean kaleko erabilera %4,7ra

helduz.
✓ Bizkaia eta Nafarroako erabilera-proportzioak egonkortu egin dira. Bizkaian %10-11 inguru eta Nafarroan %6-7 inguru. Erabileraren hazkundera motela da, 17 urtean 3,4 puntu baino ez direlarik igo.
✓ Iparraldean euskararen erabileraren galera etengabekoa da.
✓ Adin-taldeei dagokienenez, zenbat eta gazteagoak izan, euskararen erabilera altuagoa da. Lehenengo neurketatik, haurren (%15etik %20ra), gazteen (%8,5etik %13,8ra) eta helduen (%9,2tik %12,3ra) erabilerak gora egin du. Adinekoen erabilera aldiz, nabarmen jaitsi da, lehen neurketan erabilera %13,7 zen eta azken neurketan %10,6.
✓ Azken neurketa biak kontutan hartuta, 2001 eta 2006koa, adin talde guztietan euskararen erabilera txikitu egin da.
✓ Udalerriko hizkuntza gaitasunaren irizpidea kontuan izanda, tarteko tipologietan lortu da hobekuntzarik nabarmenena. Gaitasun maila %25-50ekoa den eremuan %13tik %20ra eta %50-75ekoan %36tik %41era. Baina azken bi neurketetako datuak aztertuta, zonalderik euskaldunenetan (%75-100) lortu zen hobekuntza erritmo biziena.
✓ Adin tarte guztietan, emakumeek gizonezkoek baino erabilera tasa hobeak lortu dituzte. Emakumeen aldeko aldeak nabarmenak dira haurren eta gazteen artean. Heldu eta zaharren artean berriz, aldeak oso txikiak dira.
✓ Elkarriketetan haurrak tarteko direnean euskara gehiago erabiltzen da haurrik ez dagoenean baino.

BIZKAIKO EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILERA

- EZAGUTZA -

- ✓ Bizkaiko biztanle erdaldunen bilakaerak azken urteetan beheranzko joera izan du, hamabost urtean erdaldunen kopurua 183.000 biztanletan jaitsi delarik. Hala ere multzo honetan kokatzen diren lurralde honetako biztanle gehienak.
- ✓ Bizkaiko euskaldun alfabetatu eta euskaldun erdi-alfabetatuen bilakaerak goranzko joera dauka. Multzo hauetan hamabost urtetan ia 280.000 biztanle gehiago daude.
- ✓ Bizkaiko **haurren** ezagutzari dagokionez, euskaldunen kopurua gorantz doa eta ia-euskaldun eta erdaldunak diren haurren joerak nabarmen egin du behera. Hamabost urteko bilakaeran, haur euskaldunak hirukoiztu egin dira eta haur erdaldunak berriz erdira jaitsi dira, %35etik %12,34ra zehatz-mehatz.
- ✓ Bizkaiko **gazteen** ezagutzari dagokionez, gazte euskaldunen joera goranzkoa izan da eta gazte ia-euskaldun eta erdaldunen kopuruak beherantz doaz etengabe. 2006ko neurketaren arabera, Bizkaiko gazteen %85 gutxi gora-behera euskaldun eta ia-euskaldunen multzoan kokatzen da.
- ✓ Bizkaiko **helduen** ezagutzari dagokionez, euskaldun eta ia-euskaldunen kopuruak gorantz egiten ari dira eta erdaldunen kopuruak beherantz. Hala ere, Bizkaiko helduen biztanle gehienak erdaldunen multzoan aurkitzen dira. Azken neurketaren arabera, gutxi gora-behera biztanleen % 48 dago erdaldunen taldean.
- ✓ Bizkaiko **adinekoen** ezagutzari dagokionez, erdaldunen biztanleen bilakaera mantendu egin da urteetan zehar. Euskaldunen multzoan proportzioek beheranzko joera izan dute. Adineko biztanle gehienak ere erdaldunen taldean aurkitzen dira.

- ERABILERA -

- ✓ Bizkaiko euskararen erabileraren bilakaera ez da argia. 1989tik euskararen kale erabilera gora joan da etenaldi edo geldialdirik gabe, baina badirudi 2006ko neurketan joera orokor hau aldatu egin zela, %11tik %10, 4ra jaitsi zelarik. Hala ere, Bizkaiko beheranzko joera hau ezingo da baieztatu hurrengo neurketaldia egin arte, izan ere jaitsiera hain txikia izanik, beste arrazoi batzuk izan daitezkeelako jaitsieraren zergatia.
- ✓ Euskal Herriko herrialdeen artean, Bizkaia tarteko egoeran dago euskararen kale erabilerari dagokionez.
- ✓ Bizkaiko adin taldeen erabileraren joera orokorra aztertuta, 1989tik 2006ra guztiek goranzko joera izan dutela ikusten dugu, batez ere 1989tik 2001era. Azken neurketan berriz, euskararen kale erabilerak behera egiten

du adin talde guztietan.
✓ Bilbon jaso dira sexuaren irizpideari dagozkion datuak. Adin talde guztietan emakumeek euskara gehiago erabiltzen dute gizonezkoek baino. Genero bien arteko alderik handiena haur eta helduetan nabarmentzen da.
✓ Haurren presentzia kontuan izanda, Bilbon euskararen erabilera bikoiztu egiten da haurrak tartean daudenean.

ONDARROAKO EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILERA

- EZAGUTZA -

- ✓ Ondarroako biztanle gehienak euskaldunen hiru multzoetan (alfabetatuak, erdi-alfabetatuak, alfabetatugabeak) kokatzen dira, azken neurketaldiaren arabera % 81 pasatxo.
- ✓ Euskaldun alfabetatuen multzoan herriko biztanleen %60 baino gehiago biltzen da. Multzo honen lehen hiru urtetako bilakaera positiboa izan da. 2006an aldiz, mantendu egiten da.
- ✓ Ondarroako erdaldunen multzoaren proportzioak mantendu egin dira %7 inguruan.
- ✓ Ondarroako **haurren** ezagutzari dagokionez, gehienak euskaldun eta ia-euskaldunen multzoan kokatzen dira, %95 gutxi gora-behera.
- ✓ Ondarroako **gazteen** ezagutzari dagokionez, gazte gehienak, ia %100, euskaldun eta ia-euskaldunen multzoan kokatzen dira.
- ✓ Ondarroako **helduen** ezagutzari dagokionez, euskaldunen eta ia-euskaldunen bilakaera mantendu eta erdaldunen bilakaera berriz beheranzkoa izan da. Helduen biztanle gehienak euskaldun eta ia-euskaldunen multzoan kokatzen dira, %90 inguru.
- ✓ Ondarroako **adinekoen** ezagutzari dagokionez, euskaldunen bilakaera proportzioan beheranzkoa izan den heinean, ia-euskaldunen kopuruak gora egin du eta erdaldunen multzoa mantendu egin da.

- ERABILERA -

- ✓ Erdiguneko kaleetako euskararen erabilaren bilakaera positiboa da, 1989tik 10 puntu gehiago lortu dira, %70,9tik %80,7ra igoz. Beraz, Ondarroan kaleko elkarriketa gehienak euskaraz egiten dira.
- ✓ 2006ko neurketan jasotakoaren arabera, Ondarroan gazteen gunetean euskararen kale erabilera % 85,7 izan da.
- ✓ Ondarroan euskararen erabilaren bilakaera goranzkoa da haur, gazte eta

helduen taldeetan. Adinekoen taldean berriz, bilakaera hori beheranzkoa da.
✓ 2006ko neurketan euskara gehien erabiltzen dutenak haurrak (% 93,3) eta gazteak (%89,8) izan dira. Helduen eta adinekoen erabilera maila antzekoa izan da: % 74,8 eta % 73,4, hurrenez hurren.
✓ Genero ikuspegitik, gizonezkoen eta emakumezkoen artean ez dago erabileran alderik, bietan %85,7.
✓ Adin taldeak banaka aztertuz, sexuaren aldagaia esanguratsua da. Belaunaldi gazteetan emakumezkoek gehiago hitz egiten dute gizonezkoek baino eta adinekoetan alderantziz gertatzen da, erabilera txikiagoa da emakumezkoen artean. Helduen erabileran ez da sexuaren araberako alderik egon.
✓ Ondarroako kaleetan elkarrizketa batean haurrak tartean egotearen aldagaiak ez du eraginik elkarrizketa euskaraz edo erdaraz izateko. Haurrik tartean ez dagoenean erabilera %45 zen eta haurrak presente daudenean, berriz, %47,4.
✓ Erabilerarik altuena haurrak mintzakide direnean jaso da: haurren artean jasotako elkarrizketetan (%96,2) edo haurrek elkarrizketan zuzenean parte hartzen dutenean (%88,6).

6. ERANSKINAK

☐ Kale neurketan erabilitako **fitxak**



SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTRERAK

HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

		EUSKARAZ				FRANTSESEZ / GAZTELERAZ			
		Haurrak (0-14 urte)	Gazteak (15-24 urte)	Helduak (25-64 urte)	Adinekoak (65+... urte)	Haurrak (0-14 urte)	Gazteak (15-24 urte)	Helduak (25-64 urte)	Adinekoak (65+... urte)
ADIN TALDE BEREKOAK		EMAKUMEA				EMAKUMEA			
		GIZONA				GIZONA			
ADIN TALDE EZBERDINEKOAK	Haurrik ez		EMAKUMEA				EMAKUMEA		
		GIZONA				GIZONA			
	Haurrak ez dira mintzakide	EMAKUMEA				EMAKUMEA			
		GIZONA				GIZONA			
	Haurrak mintzakide	EMAKUMEA				EMAKUMEA			
		GIZONA				GIZONA			
Orotara									

MARTIN UGALDE KULTUR PARKEA - 20140 ANDOAIN • Tel.: 943 59 25 56 • Fax: 943 304151 • kluster@soziolinguistika.org



SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA

HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

BESTE HIZKUNTZAK

Haurrak (0-14 urte)	Gazteak (15-24 urte)	Helduak (25-64 urte)	Adinekoak (65... urte)
EMAKUMEA			
GIZONA			
Orotara			

BAKARRIZKETAK

EUSKARAZ

Haurrak (0-14 urte)	Gazteak (15-24 urte)	Helduak (25-64 urte)	Adinekoak (65... urte)
EMAKUMEA			
GIZONA			
Orotara			

ERDARAZ

Haurrak (0-14 urte)	Gazteak (15-24 urte)	Helduak (25-64 urte)	Adinekoak (65... urte)
EMAKUMEA			
GIZONA			
Orotara			

OHARRAK: (ekitaldi berezi bat egon bada, elurtea...)

ADIN TALDE BEREKOAK

Haurrak (0-14 urte)	Gazteak (15-24 urte)	Helduak (25-64 urte)	Adinekoak (65... urte)
EMAKUMEA			
GIZONA			
Orotara			

ADIN TALDE EZBERDINEKOAK

Haurrak (0-14 urte)	Gazteak (15-24 urte)	Helduak (25-64 urte)	Adinekoak (65... urte)
EMAKUMEA			
GIZONA			
Orotara			

OHARRA: adinkako eta taldekako emaitzen batura egin, kontuan hartu biak kopuru berdina eman behar dutela.

Herria: **Ibilbidea:** **Eguna:** **Ordua:**

1. Neurtzailearen izena (k): **Tel.:** **Fitxaren zbkia:**

2. Neurtzailearen izena (k): **Tel.:**

MARTIN UGALDE KULTUR PARKEA • 20140 ANDOAIN • Tel.: 943 59 25 56 • Fax: 943 304151 • kluster@soziolinguistika.org

7. BIBLIOGRAFIA

- SOZIOLOGIA KLUSTERRA, BAT Soziologia aldizkaria, 64. zenb. 2007ko iraila, Andoain.
- SOZIOLOGIA KLUSTERRA, ONDARROAKOA Euskararen Kale Erabileraren Neurketa. 2006ko urria, Ondarroa.
- JUARISTI, Patxi (2001). 6. Euskara, Eustat, 207-243 or.
- EUSKO JAURLARITZA, IV. Inkesta Soziologikoa. 2008, Vitoria-Gasteiz.
- <http://www.soziolingua.org>. 2010ean eskuratua.
- <http://www.eustat.es>. 2010ean eskuratua.
- <http://www.soziolingua.org/edb>. 2010ean eskuratua.
- http://www1.euskadi.net/euskara_adierazleak. 2010ean eskuratua.
- www.ondarroa.eu. 2010ean eskuratua.
- www.sustatu.com/1197458506. 2009an eskuratua
- http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1197451297. 2009an eskuratua
- http://eu.wikipedia.org/wiki/Euskal_Herriko_Kale_Erabileraren_Neurketa. 2010ean eskuratua.